

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Mapa politikoaren argazkia ateratzeko ordua iritsi da **IÑAKI ALTUNA > 11**

## KOADERNOA

Hauteskunde bezperako hausnarketa, arbolatik **XABIER IZAGA GONZALEZ > 21**

2023ko maiatzaren 27a | XVII. urtea • 826. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## 71 MILIOI PERTSONAK UTZI BEHAR IZAN ZUTEN ETXEA IAZ

INOIZ BAINO BARNE DESPLAZATU GEHIAGO IZAN ZIREN MUNDUAN 2022. URTEAN. INDARKERIAK, GATAZKEK ETA KLIMA LARRIALDIAK 71 MILIOI PERTSONA BOTA ZITUZTEN ETXETIK. SIRIA, UKRAINA ETA KONGOKO ERREPUBLIKA DAUDE LARRIEN. **> 23** Arun SANKAR | AFP



**Urruntze behartua: inoiz baino barne desplazatu gehiago izan ziren iaz munduan** 04

**Jugoslaviarekiko nostalgiak gora egin du azken urteotan** 08

**Ignacio Ansorena Funtsa, Durangaldeko 10.000 irudi baino gehiagoren bilduma** 12

**Niko Vazquezek 80ko hamarkadako Bilbo berreskuratu du adimen artifizialaren bidez** 16

**Unibertsitateko doktoregaien osasun mentaleko arazoak ikertu dituzte** 22

**Pantaila Txikian: hauteskondeak telesailen jokalekuan** 26

**Juantxo Egañaren Behatzulotik** 31



**SINADURAK:**

- 03 **Iñaki Soto:** Herritarrak ezagutzea da gakoa, zitalak barne
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Lehentasunak
- 11 **Iñaki Altuna:** Mapa politikoaren argazkia ateratzeko ordua iritsi da
- 19 **Miren Azkarate Badiola:** Kantatu nirekin batera
- 19 **Asier Aiestaran:** Vinicius eta gaizki ulertutako pasioa
- 20 **Itziar Elizondo Iriarte:** Ez ba!
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Hauteskunde bezperako hausnarketa, arbolatik
- 25 **Amaia Ballesteros**
- 30 **Izaro Fernandez Iriondo:** Adimen Artifiziala garun ikerketan bidelagun



{ datorrena } Iñaki SOTO

# Herritarrak ezagutzea da gakoa, zitalak barne

**G**aztetan, Jarrairi esker, herrialdeko geografia eta idiosinkrasia ondo ezagutu genituen. Herri eta auzoetan ibiltzen ginen, militantzia eta abenturak jende desberdinarekin partekatzen. Era guztietako mugak zeharkatzen genituen *check-pointez* betetako mapa batean. Gazte asko ginen, eta gazte asko Jarraikoak ginen. Hori alde polita zen. Alde itsusiaz, gogorkeriaz, sarri hitz egin dugu.

Zuzendari karguari eta giro politikoaren aldaketei esker, beste jende asko ezagutu dut azken hamarkadan, lurralde horiei beste aurpegi batzuk gehituta. Horien artean, beste familia politikoetako pertsona asko dago, nireak ez bezalako jatorri eta anbizioak dituzten pertsonak. Lubakietatik kanpo lagunen bat ere egin dut. Elkarbizitza hobetsita, zenbait auzi alboratu ditugu. Jakina, ez gara inozoak: desadostasun sakonak ditugu.

Hala ere, ez nago ziur elkarbizitzak «beste sagardotegi batzuetako arauak» hobeto ezagutzea ekarri duen. Elkar ezagutze horrek ahula eta hauskorra izaten jarraitzen duela uste dut. Mundu guztiak ohitura du bere egiteko erak besteen etxeetara proiektatzeko. Hori da «gauzak egiteko modu natural» gisa ulertzen duguna.

Nire tradizio politikoan, gauza batzuk apurtzen bada, zailak dira konpontzen. Adibidez, jendilaje gisa portatzea onartezina da. Ez baduzu betiko hautsi nahi, hobe da urrutiegi ez joatea. Beste kultura politiko batzuetan, ordea, hori ez da horrela. Jendeak bi aurpegi izan ditzake eta biak, otso eta uso, balekoak izan daitezke. «Politika da, ez hartu serioegi», esango balute bezala. Hartara, edozer esan daiteke.

Jokabide horrek bultzatuta, asteren batean, EAJ nola edo hala erakundeetatik bota behar dela pentsatzen dut, iparra galdu dutelako. Urrutiago joan gabe, aste honetan gertatu zait, Andoni Ortuzarren zitalkeria ikusita. Beste asteren batean, ordea, PSOeren supre-

mazistekin akordiorik egitea ezinezkoa dela pentsatzen dut. Lehenik eta behin, haiek eragindako mina pairatu zutena bezain garrantzitsua dela ulertzen ez dutelako. Gero, hara non eta besteak datozen, ikastolak eta Opus Dei berdintzen. Kontuz, lagunekin eztabaida ez da beti erraza izaten. Egun batzuetan, noski, Uruguaira edo Norvegiara joatearekin amesten dut.

Gero, matematika demokratikoari begiratzen diot, eta beste familia horiekin gatazkak izan eta adostasunak lortzea beste aukerarik ez dagoela onartzen dut. Bide batez, abertzale batek mundu honetan duen ardua partikularra eta kolektiboa horixe dela sinesten dut: herriari eta jendarteari ekarpena egitea.

Fase historiko honetan, euskal jendartearen erronka nagusietako bat barne ezagutza zabaltzea da. Zentzu

Euskal jendartearen erronka nagusietako bat barne ezagutza zabaltzea da. Zentzu ia antropologiko batean. Jende guztia ez baita guretzat «normala» den hori

ia antropologiko batean. Jatorri politiko, sozial eta kultural desberdinetako herritarrak ezagutzeko esfortzua egin behar da. Jende guztia ez baita guretzat «normala» den hori. Halaber, kontrakoaren erromantizazioak eta errealitatearen ukazioak muga nabarmenak dituzte. Euskal herritarron gehiengoak ahalik eta lurralde gehien zapaltzea eta ahalik eta hizkuntza gehienetan komunikatzeko gaitasuna izatea beharrezkoa da. Ezagutza horrek gure gatazkak eta adostasunak birdefinitzeko aukera emango liguke.

Hauteskundeak oso garrantzitsuak dira. Bozkatzeko aukera bat dira, eta ez da gutxi. Biharkoetan, asko dago jokoan, ez soilik herritarren ordezkariak, baita zital jokatzea noraino den onargarria ere. Hori bai, herri bat zitalekin ere eraiki behar da. Zenbaitek esaten dutenaren kontra, politika gauza serioa baita. •

# URRUNTZE BEHARTUA

## Inoiz baino barne desplazatu gehiago izan ziren iaz munduan: 71 milioi

**A**ldaketa klimatikoaren edo gatazken ondorioz, inoiz baino desplazatu gehiago izan ziren iaz munduan: 71 milioi pertsona, hain zuzen.

Kopuru hori aurreko urtekoa baino %20 handiagoa da Barne Desplazamenduen Behatokiak (IDMC) eta Errefuxiatuen Norvegiako Kontseiluak (NRC) egindako txostenaren arabera.

«Desplazamenduak eskalan, konplexutasunean eta irismenean ere hazten ari dira, elikadura-segurtasun ezaren, klima aldaketaren eta gatazken eraginez; faktore horiek hainbat geruza gehitu dizkiote fenomenoari», adierazi zuen Alexandra Bilak IDMCko zuzendariak ikerketa aurkeztu zuenean.

Desplazatu horietatik, 62,5 milioi gatazken eta indarkeriaren ondorioz utzi zuten etxea; hau da, 2021ean baino %17 gehiago. Alde horretatik, herrialde kaltetuenak Siria (6,8 milioi desplazatu), Ukraina (5,9 milioi), Kongoko Errepublika Demokratikoa (5,6 milioi) eta Kolonbia (4,7 milioi) dira.

### AFRIKA ETA EKIALDE HURBILA

Nigeria, Somalia, Etiopia, Sudan, Yemen eta Afganistanekin batera, lau herrialde horiek dituzte mundu osoko barne desplazatu hiru laurden, txostenaren arabera.

Gatazkak arrazoi nagusia badira ere, larrialdi klimatikoaren eragina izugarri handitu da. Hondamendi naturalengatik desplazatuak 8,7 milioira iritsi ziren iaz –urte arteko %45eko hazkundera–. Kasu horretan, Pakistanen uholdeen ondorioz etxea utzi zuten milioi bat pertsona baino gehiago nabarmendu ditu txostenak,

### 📁 GIZA ESKUBIDEAK / GAUR8

laz, mundu osoan, 71 milioi pertsonak etxetik urrun bizi behar izan zuten: aurreko urtean baino %20 gehiago. Gehienek indarkeriatik eta gatazketatik ihes egin zuten, baina larrialdi klimatikoak ere gero eta eragin handiagoa du. Siria, Ukraina eta Kongoko Errepublika dira barne desplazatu gehien duten herrialdeak.

nahiz eta kopurua are handiagoa izan den ondoko Afganistanen (2,1 milioi).

Hondamendiek kaltetutako komunitate garrantzitsuak dituzten beste herrialde batzuk Nigeria (854.000 barne desplazatu), Etiopia (717.000), Hego Sudan (665.000) eta AEBak (543.000) dira.

### ELIKAGAI ESKASIA

Txostena egin duten GKEek azpimarratu dute barne despla-

zamenduaren eta elikadura-segurtasun ezaren arteko lotura gero eta handiagoa dela: elikagai eskasia handia pairatzen duten herrialdeen hiru laurdenek haien etxea uztera behartuta dauden komunitate mota horiek hartzen dituzte. Besteak beste, Nigeria, Afganistan, Etiopia, Yemen eta Kongoko Errepublika Demokratikoa.

«Ukrainako gerrak elikadura segurtasun globalaren krisia piztu du, eta, batez ere, barne

Emakume sudandar bat, bere senide bat besarkatzen, gatazken ondorioz herritik aterata behar izan ondoren.  
Mohamed HUWAIS | AFP



desplazatuaren artean izan du eragina. Ekaitz perfektu horrek gosea eta malnutrizioa murrizteko urtetan egindako aurrerapenak ahuldu ditu», azpimarratu du NRCko idazkari nagusi Jan Egelandek (Nazio Batuen Erakundeke buru humanitario ohia).

Joan den urtean, txostenaren arabera, desplazatuaren 60,9 milioi mugimendu izan ziren planetan (horietako batzuek hainbat aldiz aldatu zuten kokalekua, eta kasu batzuetan, azkenean, etxera itzuli ahal izan zuten); %60ko igoera handia, 2021eko datuekin alderatuta.

Mugimendu horietatik, 32,6 milioi hondamendi naturalek eragin zituzten, ikerketaren arabera. Nabarmenezkoa da laurden bat (8,2 milioi) Pakistango uholdeek eragin zutela, eta 1,1 milioi, Somaliako lehorteak, Afrikako Adarreko hainbat lekutan goseteak eragin dituenak, alegia.

### HONDAMENDI KLIMATIKOAK

Guztira, 19 milioi mugimendu baino gehiago uholdeek eragin zituzten; 9,9 milioi, ekaitzek; 2,2 milioi, lehorteak; 366.000, suteak eta 12.000, bero boladek. Guztiak, klimarekin lotutako hondamendiak. Beste 699.000 desplazamendu lurrikarek eragin zituzten.

Hondamendi naturalek eragindako desplazamendu askok zerikusia izan zuten La Niña fenomenoaren ondorioekin. Izan ere, Ozeano Bareko urak hozteak uholdeak zein lehorteak eragiten ditu planetako zenbait latitudeetan.

Gatazkek eta indarkeriak eragindako 28,3 milioi mugimenduei dagokienez, txostenak nabarmendu du %60 Ukrainako gerraren ondorio izan zirela (17 milioi), baina Kongoko Errepu-

## Indarkeria izan zen desplazamenduen arrazoi nagusia, baina hondamendi naturalengatik desplazatuak 8,7 milioira iritsi ziren iaz: urte arteko %45eko hazkundera

### Joan den urtean, desplazatuen 60,9 milioi mugimendu izan ziren planetan. Horietako batzuek hainbat aldiz aldatu behar izan zuten kokalekua

blika Demokratikoan indarkeriak eragindako 4 milioiak eta Haitin izandako 106.000 mugimenduak ere jaso ditu (2021ean baino bost aldiz gehiago). 2022ko gatazkengatik desplazamenduen kopurua azken hamarkadako batez bestekoa baino hiru aldiz handiagoa izan zen.

#### AMERIKA


Amerikan, barne desplazatuak –gatazkengatik, indarkeriarengatik edo hondamendi naturalengatik– 6,7 milioi izan ziren, aurreko urtean baino %1,5 gehiago. Barne Desplazamenduen Behatokiaren eta Errefuxiatuen Norvegiako Kontseiluaren arabera, mundu osoko desplazatuen %9 Amerikan daude; gehienak, Kolonbian (4,8 milioi). 5,9 milioi pertsona gatazkengatik eta indarkeriarengatik zeuden etxetik urrun, eta beste 720.000, hondamendi naturalen ondorioz.

Kolonbiaren atzetik, AEBak dira barne desplazatu gehien duen herrialdea (543.000); denak sute, urakan eta antzeko fenomenoengatik. Jarraian daude Mexiko (390.000), Honduras eta Guatemala (bakoitzak, 250.000).

Txostenak jaso duenez iaz 2,6 milioi desplazatu berri izan ziren, 2021ean baino %30 gehiago; 2,1 milioi hondamendi naturalek bultzatuta eta 530.000 gatazkengatik.

Somaliako Beledweyne kanpoaldean uholdeak izan ostean, familia bat, bat-batean egindako etxola batean.

Hassan ALI ELMI | AFP



#### KOLONBIA

Kolonbiak, 2022an, 339.000 mugimendu berri izan zituen indarkeria armatuaren ondorioz, hamarkadako kopururik handiena.

Behartutako desplazamendu horien eragin handiena izan zuten eremuak Cauca, Valle del

Cauca, Putumayo eta Nariño izan ziren. Hala ere, fenomenoak beste eskualde batzuei ere eragin zien; hala nola, Antioquia, Choco, Cordoba, Cauca, Cesar eta Magdalenari.

Txostenak azpimarratu du istilu gehienak urtearen lehen erdian gertatu zirela, eta esta-

tuz kanpoko talde armatuek, kasu askotan, giza eskubideen eta ingurumenaren aldeko gizarite eta komunitate liderren aurkako erasoak eta mehatxuak bideratu zituztela.

Mugimendu horien ondoren, 2022aren amaieran 4,8 milioi barne desplazatu zeu-

## UKRAINA, BEHARTUTAKO MUGIMENDU HANDIENA IAZ

Ukrainako gerrak munduan derrigorrezko mugimendu handiena eragin zuen 2022an, eta 16,9 milioi pertsona barne desplazamendura eramane zituen; horietatik, 5,9 milioi desplazatuta jarraitzen zuten urte amaieran. Gainerakoek, berriz, herrialdetik irtetea edo etxera itzultzeko arriskua hartzea erabaki zuten.

Errusia, Kazakhstan, Kirgizistan eta Armenian erregistratutako desplazamendu txikiekin batera, Europa eta Asia erdialdeko eskualdean 17 milioi desplazatu izan ziren.

Europan eta Asia erdialdean izandako hondamendiek eragindako joan-etorriak %61 murriztu ziren.

Mediterraneoan baso-suteen ondorioz gertatu ziren desplazamenduak; batez ere, Espainian eta Frantzian (bien kasuan, guztizkoaren %85 izan ziren).

Ukrainaren kasuan, ikertzaileek adierazi dute zenbatutako barne desplazamenduen zati bat hainbat arrazoiengatik bi aldiz edo gehiagotan tokiz mugitu behar izan zuten pertsonen zehazki; hala nola, eraso militarrengatik edo ostatu egonkor bat aurkitzeko edo diru sarrera bat sortzeko ezintasunarengatik.

Hala ere, Ukrainako lau desplazatuetatik hiruk adierazi dute jatorriera itzultzea izango litzatekeela, epe ertainera, beren egoera

konpontzeko modurik onena, baina epe motzera zaila ikusten dutela lehergailuak daudelako, oinarritzko zerbitzurik ez dagoelako eta lana aurkitzeko zailtasunak daudelako.

Ukrainaz gain, Kirgizistan eta Tajikistan arteko mugan 2022an izandako talka militarrek 166.000 pertsonaren desplazamendua eragin zuten Kirgizistan aldean (aurreko urtean baino hiru aldiz gehiago); horietako gehienak, ondoren, etxera itzuli ziren. 4.000 bat pertsonak jarraitzen zuten lekualdatuta 2022. urte amaieran.

Bestalde, Armeniaren eta Azerbaijanen arteko tentsioek 7.600 pertsona lekualdatu zituzten irailean mugan, txostenaren arabera.



den Kolonbian, eta, txostenak dioenez, beherakada txiki bat izan zen, 2021ean 5,2 milioi baitziren.

Barne desplazatu horietako gehienak (4,76 milioi) gatazken eta indarkeriaren ondorioz zeuden etxetik urrun; 41.000, berriz, hondamendi naturalen biktima izan ziren, azterketa globalaren arabera.

Amerikako desplazatu guztien %71 Kolonbian bizi da, baina ikerketak zehaztu du munduan fenomeno horri buruzko erregistro aurreratuenak eta osatuenak dituen herrialdeetako bat dela, eta horrek ere azal lezake, beraz, kopuruak indarkeria eta krisi maila antzekoak dituzten beste herrialde batzuetakoak baino askoz altuagoak izatea.

Iaz, halaber, 281.000 barne desplazatu mugitu ziren, hondamendi naturalekin lotuta –batez ere, uholdeen ondorioz–, Sucre eta Bolivar iparraldeko departamenduetan.

#### MEXIKO

Mexikoko indarkeriaren ondoriozko barne desplazatuak 386.000 izan ziren iaz, eta beste 3.600 pertsona etxetik urrun bizi dira hondamendi naturalen ondorioz.

Bi erakunde azterketak dioenez, indarkeriak beste 9.200 pertsonaren mugimendua eragin zuen iaz; beherakada nabarmena, 2021ean erregistratutako 29.000 pertsonekin alderatuta. Baina kopurua 2019an eta 2020an izandakoen antzekoa da.

**Gatazkek eta indarkeriak eragindako 28,3 milioi mugimenduei dagokienez, txostenak dio %60 Ukrainako gerraren ondorio izan zirela (17 milioi, alegia)**

**Kolonbian 4,8 milioi desplazatu daude –Amerika osoko %71– eta 2022an, 339.000 mugimendu berri izan zituen indarkeria armatuaren ondorioz**

Meitei etniako desplazatuak, kamioi militar baten ondoan, Indiako ipar-ekialdeko Manipur estatuan izandako indarkeriatik ihes egin ondoren.

Arun SANKAR | AFP

Indarkeriak eragindako desplazamenduen %90 Michoacan (mendebaldea), Chiapas (hegoaldea) eta Zacatecas (erdialdea) estatuetan gertatu ziren. Michoacan eta Zacatecasen kasuan, 2.700 desplazamendu ‘Cartel de Jalisco Nueva Generacion’ delakoaren jardueren ondorio izan ziren, eta horietako batzuk talde kriminal horrek Michoacako Chinicuila herria hartu zuten gertatu ziren, lurrikara batek ingurune hori astindu eta bi astera, hain zuzen.

NRCK eta IDMCK azpimarratu dute Mexikoko barne desplazatuaren kopuruak gora egin zuela modu iraunkorrean joan den hamarkadan, eta kasu askotan etxera itzultzen diren familiek berriro ere utzi behar izaten dutela segurtasun faltagatik.

#### HAITI

Haitiren kasuan, iaz, talde kriminalen indarkeriaren ondorioz, hamar aldiz egin zuen

gora barruko desplazatuaren kopuruak: 171.000. Izan ere, Karibeko herrialdeak desplazatuaren 121.000 mugimendu berri erregistratu zituen iaz: 106.000 indarkeriaren ondorioz eta 15.000, hondamendi naturalen eraginez.

Indarkeriak eragindako barne desplazamendua areagotu egin zen 2021eko uztailan Jovenel Moïse Haitiko presidentea hil zutenetik. Ikerketak dio erasoak bikoiztu zirela 2022an, delitu-taldeak Port-au-Prince hiriburuaren %60az jabetu zirenean. Haitiko hiri nagusian bakarrik desplazatuaren 9.000 mugimendu egin ziren hegoaldeko departamenduetarantz. Indarkeriak beste eremu batzuetan ere eragin zituen desplazamendua; hala nola, Erdialdeko eta Artiboniteko departamenduetan.

Txostenaren arabera, Haitiko 171.000 desplazatuetatik %88 Port-au-Princeko metropoli-eremuan bizi dira; horietako askok urtebete baino gehiago daramate etxetik urrun, eta hiru laurden komunitateek beraiek hartzen dituzte, ez baitago harrera zentro ofizialik.

#### KONGOKO ERREPUBLIKA

Afrikan, Kongoko Errepublika Demokratikoan dago arazo larriena. NBEren arabera, barne desplazatuaren kopurua 6,3 milioi pertsonakoa da dagoeneko; batez ere, herrialdearen ekialdean.

Bruno Lemarquis NBEko idazkari nagusiaren ordezkari berezi eta koordinatzaile humanitarioaren arabera, pertsona horien %94k gatazkaren ondorioz alde egin behar izan zuen etxetik.

Ipar Kivu eta Ituri probintziek, herrialdearen ipar-ekialdean eta Ruandarekiko mu-

gan, gatazka armatu konplexua bizi dute duela 25 urte baino gehiagotik. Gatazka horretan, ehun miliziano matxino taldek eta Armadak borroka gurutzatu odoltsuak izan ohi dituzte.

Lemarquisen ustez, «hondamendia» dago Kongoko Errepublika Demokratikoan eta nazioarteari eskatu dio «normalizat» ez hartzeko. Gainera, NBEko ordezkariak ohartarazi du Kinsasa hiriburuaren inguruan borrokak areagotu direla, eta gaineratu du tentsioak are handiagoak izan daitezkeela aurrean.

Lemarquis asaldatuta agertu da, era berean, KEDi eragiten dioten epidemiengatik (batez ere, elgorria) eta herrialdea gero eta gehiago astintzen duten muturreko gertakari klimati-koengatik. Azkena, duela bi aste, Ipar Kivu probintzian. Eurijasen ondorioz, gutxienez, 400 pertsona hil ziren eta beste 6.000 desagertuta daude.

Modeste Mutinga Kongoko Gizarte Gaietarako, Ekintza Humanitariorako eta Elkartzaren Nazionalerako ministroak deitoratu egin du gatazkari nazioarteko komunitateak «jaramonik ez egin izana», eta ziurtatu du egoera humanitarioak okerrera egin duela azken urtean. Mutingak Ruanda ko Gobernuari egotzi dio ardura eta herrialde subirano gisa beste herrialde subirano bati erasotzea leporatu dio. Halaber, ekialdeko milizia armatuei egotzi die gatazka gogortu izanaren errua.

Gai Humanitarioak Koordinatzeko NBEren Bulegoaren arabera, 2.025 milioi dolar behar dira Afrikako herrialde honetako krisi humanitarioari aurre egiteko.

Errefuxiatuen Norvegiako Kontseiluaren arabera, Kongo-

## **Kongoko Errepublika Demokratikoa da, mundu osoan, barne desplazatu gehien eragin duen krisia eta, aldi berean, arreta gutxien jasotzen duenetako bat**

### **Haitiren kasuan, iaz, talde kriminalen indarkeriaren ondorioz hamar aldiz egin zuen gora barruko desplazatuen kopuruak: 171.000 pertsona**

Uholdeek kaltetutako herritarrak, Kongoko Errepublika Demokratikoko gobernu zentralaren laguntzaren zain, Nyamukubin. Guerchom NDEBO | AFP

ko Errepublika Demokratikoa da, mundu osoan, barne desplazatu gehien eragin duen krisia eta, aldi berean, arreta gutxien jasotzen duenetako bat.


Egoera bereziki larria da Ituri probintzian. Han 202.000 pertsonak utzi behar izan dute etxea eta, beraz, dagoeneko 1,6

milioi desplazatu daude eskualde horretan. %52 baino gehiago 18 urtetik beherakoak dira, Nazio Batuen Erakundearen arabera. Eta krisia aurreko egoera larriari gehitu zaio. Izan ere, Iturin, 1,3 milioitik gora pertsonak ezin dute osasuntsu bizitzeko behar adina jan eta milaka haurrek ez dute eskolara joateko aukera.

Azken hilabeteetan talde armatuen erasoak areagotu egin dira; batez ere, lendu etniako nekazarien Kongoko Garapenerako Kooperatibarenak. Armadaren gehiegikeriei aurre egiteko sortua, gatazka odoltsua du gaur egun hema artzain komunitatearekin. Gatazka horrek milaka hildako eragin zituen 1999tik 2003ra. Sarraski oke-

rrenak hema komunitatearen indar armatu Ituriko Autodefentsarako Herri Fronteraren kontrako erasoetan gertatu dira. Genozidioa Prebenitzeko Nazio Batuen Erakundeko aholkulari Alice Wairimu Nderituk genozidioa gertatzeko arriskuaz ohartarazi du.

Baina hori Kongoko Errepublika Demokratikoko hamaika gatazketako bat baino ez da. Ekialdea Armadaren eta milizien arteko borrokan harrapatuta dago. Bizitzeko aukera eta baliabide egonkorrik gabe, milaka kongotar armak hartzera behartuta daude bizirik irauteko. Kivuko Segurtasun Barometroaren arabera, 120 talde matxino aktibo daude ekialdeko lur horietan.



**D**uela 43 urte, 1980ko maiatzaren 4an hil zen Josip Broz Tito, oraindik ere bere sentitzen duten Jugoslaviako buruzagia, eta bere heriotza gogoratzeraren etorri diren bisitari gehien adina 80 urte ingurukoa da. Baina, haustura etnikoen ondorioz Jugoslaviako Federazioa desegin zenetik hamarkada batzuk igaro badira ere, jende gaztea ere badabil.

Gaur egungo Serbian nazionalismoa oso sutua da, ia Balkanetako eskualde osoan bezala. Halaber, baina, gero eta gehiago dira jugoslaviar gisa identifikatzen direnak; apirilean argitaratutako azken eroldaren emaitzak ikusi besterik ez dago.

Ivan Cvetkovic, 23 urte dituen ekonomia ikasleak, jugoslaviartzat du bere burua, «egungo agintarien aurka egiteagatik», baina baita berarentzat Jugoslavia oraindik «errealitate bat» delako ere.

«Jugoslaviarra izatea guztiz naturala da niretzat, ezkontza misto batetik sortua bainaiz», azaldu dio AFPri. «Balkanetan hizkuntza, historia eta pentsamolde bera partekatzen dugu», ziur da.

Jugoslaviako Errepublika Federal Sozialista –Serbia, Kroazia, Bosnia, Montenegro, Eslovenia, Mazedonia gehi bi eskualde autonomo (Kosovo eta Vojvodina) barne hartzen zituena– Titoren esanetara borrokatu zuten partianoek sortu zuten; okupatzaile nazien aurkako guda irabazi ondoren, hain zuzen.

Jugoslaviako Federazioa, Sobietar Batasunaren mende zeuden beste herrialde sozialista batzuekin alderatuta,



## JUGOSLAVIAREKIKO NOSTALGIA

Oso gutxi dira, baina gero eta gehiago, beren burua jugoslaviartzat dutenak

 HISTORIA / AFP

Titok Belgraden duen mausoleoaren aurrean, Bigarren Mundu Gerrako uniforme zaharra jantzita duten gizon-emakumeak ilaran daude lasai, ikur komunistez apaindutako jakekin, Jugoslavia ohiaren buruzagi zenari gorazarre egiteko zain.

ekonomikoki eta politikoki arreratuagoa zen, eta lau hamarkadaz kultura eta historia komun batean oinarritutako identitate partekatu baten ideia landu zuen. Ez zen lehen izan. Izan ere, aurretik, XX. mendearen hasieran, Serbiar, Kroaziar eta Esloveniaren Erresuma ere izan zen, naziek eskualdea inbaditu arte Kara-

georgievic dinastia serbiarrak gobernatu zuena.

Baina hasieratik zenbaitek erabat artifizialtzat jo zuten identitate hura. Jugoslaviar askok, batez ere, serbiar, kroaziar edo mazedoniarzatzat baitzuten beren burua.

Titoren magnetismoaz eta haren zuzendaritza autoritarioaz gabeturik, Federazioak

eta bere herrien mosaikoak beste hamarkada batez eutsi zioten, buruzagia hil zenetik. Baina ondoren, Jugoslaviak ez-tanda egin zuen, 130.000 hildako baino gehiago eragin zituzten gerrateekin.

### «JUGONOSTALGIA»

Gaur egun, «jugonostalgikoek» –izen horrekin ezagunak dira gaztaroko garai onaren falta sentitzen dutelakogogoan dute, nostalgiaz, urte haietako gutxi gorabeherako ongizatearekin eta independentziarekin identifikatzen duten herrialdea. «Jugoslaviarra naiz. Nire herritartasuna galdetzen badidate, mazedoniarra eta jugoslaviarra naizela erantzuten dut. Horrela izango da ni hil arte», esan dio 78 urteko Zivko Mitrevik AFPri. Ipar Mazedoniatik etorri da Titoren hilobira, garai bateko Jugoslavia osotik iritsitako beste erromes batzuk bezala.

Jugoslaviar nortasunaren «berpizkundea» hasi berria da,

Goiko irudian, Titoren jarraitzaile batek Jugoslavia «sozialistaren» ikurra darama bere omenez. ANDREJ ISAKOVIC | AFP





baina era berean oso erreala da, bereziki Serbian.

Azken erroldaren arabera, Serbiak 500.000 biztanle baino gehiago galdu ditu 2011. urtetik, eta 6,6 milioi baino ez ditu egun. Horietatik, 27.000k jugoslaviar bezala aurkezten dute beren burua. 23.000 ziren duela 12 urte. Askorentzat, Balkanetako nazionalismoen aurkako borroka da.

«Jugoslavismoa erresistentzia modu bat bezala ikusten dut, niretzat naturalagoa den nazionalismoaren aurkakoa. Norbaitek, bere nazionalitatea oinarri hartuta, serbiarra edo kroaziarra dela esan badezake, ni jugoslaviarra izan naiteke nire nazionalitaterik ezan oinarrituta», adierazi du Viktor Ivancic Kroaziako kazetari eza-gunak.

Bosniarrak, ijitoak, hungariarrak, asjaliak... Serbian hogeitatu bat gutxiengo etniko dauka ofizialki onartuak, eta horrek hauteskunde onurak eta finantzaketa publikoa es-

Lerro hauen gainean, Jugoslaviako Federazioaren sortzailearen estatua, aurpegi aldean apurtuta. Ondoan, Titoren ohorezko memorialaren sarrera, Belgraden.  
ANDREJ ISAKOVIC | AFP



**«Norbaitek, bere nazionalitatea oinarri hartuta, serbiarra edo kroaziarra dela esan badezake, ni jugoslaviarra izan naiteke nire nazionalitaterik ezan oinarrituta»**

**«Ez gara jugoslaviar ohiak, etorkizuneko jugoslaviarrak baizik. Ez gara Jugoslavia ohiak ari, etorkizunekoaz baizik, non progresismoa nazionalismoari gailenduko zaion»**

arazoa. «Ruteniako erresuma aspaldi hil zen, baina ruteniarrak existitzen dira oraindik ere. Valakia ere ez dago aspal-ditik. Ijitoek, nik dakidala, ez dute inoiz herrialderik izan, baina hala eta guztiz ere, ijitoak dira », adierazi du.

Jugoslaviarrak gutxiengo nazionalizat onartzeko azken saiakerak 2010ean egin zuen porrot, Serbiako agintariek egitasmoak «hizkuntza, alfabeto eta literatura» arloan ga-beziak zituela egotzita

Dasko Milinovicek dio Jugoslaviaren historia ondo finkatuta dagoela, hizkuntza ofiziala zuela, bi alfabeto, eta Ivo Andricen Literaturako Nobel Saria, denek ulertua.

«Nazio guztiak asmatuak dira, kontzeptu politiko bat ordezkatzeko dute. Nazioa ez da egoera naturalean existitzen; bestela, hartzek, txoriek eta urtxintzek izango lukete».

Oraingo honetan, Serbiako agintariek ez dirudite hain etsai. «Ideia liberalak dituen herri honetako herritarra naizen aldetik, noski, babes ematen diot (ekimen honi)», dio Tomislav Zigmanov Serbiako Giza Eskubideen eta Gutxiengoen ministroak.

Komunitateak bete beharreko baldintzak beteko balitu –hau da, erroldaren % 40ren sinadurak lortzea–, jugoslaviarrak gutxiengo ofizial bihurtuko lirake.

Bitartean, Dasko Milinovicek “jugonostalgia” defendatuko du. Bere ustez, jugoslaviar nortasuna etorkizun hobe baten itxaropenari dagokio, non progresismoa nazionalismoari gailenduko zaion. «Ez gara jugoslaviar ohiak, etorkizuneko jugoslaviarrak baizik. Ez gara Jugoslavia ohiak ari, etorkizunekoaz baizik», amaitu du.

kaintzen dizkie beren kultura babestu ahal izateko.

Batzuek, hala nola Dasko Milinovicek, serbiar idazle eta irrati aurkezle ospetsuak, nahi lukete gutxiengo ofizialen erdia baino gehiago diren jugoslaviarrei ere estatus hori onartzea.

#### RUTENIA ETA ERROMANIAK

Dasko Milinovicen ustez, herrialdea desagertu izana ez da



**Saioa Aginako Lamarain**  
Psikoterapeuta

## Lehentasunak

**G**izarte arauak gizabanakoen elkarreraginen emaitza dira eta gizarte interakzioen hizkuntza moduko bat bezala ulertu behar dira. Horrela, hizkuntza bat bezala, arau-sistema batek zehazten du zer den onargarria eta zer ez den onargarria gizarte edo talde batean. Gizarte-egitatea gizarte talde batean dagoen portaera edo ideia orori dagokiona da. Gizarte-egitateak botere hertsatzailea du pertsonen jokabidearen gainean, horiek moldatuz eta modu jakin batean jokatzeko eta pentsatzeko prestatuz.

Egia bada ere arauak funtsezkoak direla gizaki guztientzat, jarraibide komunak jarraitu behar direlako eta, aldi berean, kolektibo bateko kide garena sentitu behar dugulako, gizarte-arau guztiak ez dira bete behar: arau komunitik aldendu ere egin gaitezke. Aitzitik, eredu komun jakin batzuen pean bizi gaitezke, baina identifikatzen gaituena, sinesten duguna alde batera utzi gabe.

Ildo horretan, batzuetan zaila da norberaren usteei jarraitzea, batez ere pentsatzen edota sentitzen duguna gure inguruko gizarte jarrerarekin eta gehiengoaren usteekin bat ez datorrenean. Horregatik, gure uste osoa beste pertsonengandik desberdina edo kontrakoa den unean, zalantzak sor dakizkiguke gure sinesmenak egokiak ote diren. Edo, beharbada, zaila izango zaigu horiek adieraztea edo egin nahi genukeen jarduera hori gauzatzea, igurikimenei edo aruari egokitzeko. Hau da, adibidez, nola esango diet lagunei bizitza osoan egin duguna ez zaidala atsegina egiten eta nahiago dudala aldatzea?

Zeure burua errespetatzea autoestimua babestu edo artatzetik haratago doa. Norberarenganako erabateko onarpenarekin du zerikusia, baita norberaren

beharren arabera bizimodua eramateko gaitasunarekin ere. Harritzen bagaitu ere, interesgarria da jakitea, gure hezkuntzari dagokionez, ahaztuta dagoen eta kontuan hartzen ez dugun kontzeptu baten aurrean gaudela.

**Baliteke datu horrek irakurle bat baino gehiago harritzea. Psikologiak ez dio autoerrespetuaren kontzeptuari eman beharko liokeen arreta ematen.** Izan ere, autoestimua ezinbesteko osagaia da ongizate psikologikorako, baina autorrespetua sendotasuna ematen dion oinarria da.

Horrela, eta ondo dakigunez, autoestimua gure buruaz egiten dugun ebaluazioarekin du zerikusia. Norberaren nia- ren pertzepzio hori, kasu gehienetan, gure inguruetik, familiaratik, lagunengandik eta gizartetik helarazten zaizkigun mezuetatik abiatuta eraikitzen da. Tira, egia esan, autoestimua nork bere burua maitatzeko arrazoiak eskatzen dizkigun bitartean, autoerrespetuak gure burua den bezala onartzea eskatzen digu. Gure handitasun eta akatsekin, gure potentzialarekin eta mugekin, hain zuzen ere.

Gauetik goizera aldatu nahi ditugun bertute, muga, mania, balio, amets eta itxaropenen bilduma gara. Eta horiek denak batera eta bat-batean aldatu nahi izatea ez da osasungarria. Hau da, aldatzea ez da txarra, beharra norberaren baitatik abiatzen bada. Pertsonak gure burua hautemateko moduan zenbait aldaketa behar ditugu, helburuak eta jarrerak egokitzeko, oreka eta hazkunde pertsonala lortzeko.

Norbere burua errespetatzeak lehentasuna ere bagarela gogoraraztea eskatzen du. Alegia, ezin dugu dena eman indarririk gabe geratu arte. •



Zure burua errespetatzea autoestimua babestetik haratago doa. GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

# Mapa politikoaren argazkia ateratzeko ordua iritsi da

**H**auteskunde bezperan hauteskunderen emaitzaz aritzea ariketa ausartegia ere bada, gaur botatakoak bihar bertan eze-rezean gera baitaitezke. Aldiro gertatu ohi zaie inkestei, baita boz lekuak itxi eta berehala plazaratzen diren horiei ere, nahiz eta jadanik boza eman dutenekin eginak izan. Soziologiaren adar honek beti txundituko gaitu.

Hauteskunderen emaitzaz aritzerakoan, bestalde, emaitza horiez alderdi bakoitzak egin dezakeen kudeaketa ere kontuan hartu behar da. Alegia, bi une daude lortutako uzta ona, erdipurdikoa edo txarra izan den ebazteko. Lehena, jakina, lortutako boz kopuruarena da; bigarrena, paktu politikaren bidez lortzen den botere mailarena. Gerta daiteke, beraz, emaitza onak lortu arren, emaitza horiek ez izatea horrenbesteko isla erakundeetan, edo alderantziz.

Dena dela, gero gerokoak, biharkoa ahalik eta boz gehien lortzeko momentua baita. Bide batez, berriro ere, Euskal Herriko –kasu honetan, hegoaldeko– mapa politikoa ikusteko aukera izango dugu.

Egia esan, sekulako astinaldi bat gertatzen ez bada (azkenekoa, Podemosek hauteskunde orokor batzuetan lehen indar izan zenean Hego Euskal Herrian), mugimenduak ez dira alimalekoak izaten. Tendentziak berresten edo aldatzen dira, baina jadanik ezagunak diren parametroetan.

Bi dira oraintxe indar nagusiak: EAJ eta EH Bildu. Inkesten arabera, biak doaz gorantz. Politikoki harrigarria ere bada azken urteotako tendentzia hori izatea, non bien arteko lehia erdigunean jarri baita. Azalpenak bilatuta, EAJ erreferentziarik gabe geratu den eskuineko espainolismoaren aterpe bilakatu delako eta EH Bildu, ezker abertzalearen berrespen hutsa ez den

neurrian, sektore berrietara iristeko aukera duelako, eta gazteen erreferentzia ere bilakatu delako.

Geroa Bai alde batera utzita (EAJren itzalpekoa omen den baina EAJri boz emango ez lioketen hautesleak biltzen omen dituen), jeltxideek kasik 120.000 bozoko aldea atera zioten EH Bilduri duela lau urteko foru hauteskundeetan; 60.000 pasatxo udaletako bozketetan. Erreferentzia onak izan daitezke biharko emaitzak aztertzeke orduan.

Alderdi batetik besterako boz mugimenduak garrantzitsuak izan daitezke alde hori mantentzeko edo murrizteko; esate baterako, PPK leku jakin batzuetan burua altxatzen badu eta EAJri maileguan utzitako bozen zatitxo bat berreskuratzen badu.

Boz joan-etorri horiez gain, abstentzioa faktore erabakigarria izango da; abstentzio horrek zenbateraino

Jeltxideek kasik 120.000 bozoko aldea atera zioten EH Bilduri duela lau urte. Erreferentzia ona izango da biharko emaitzak aztertzeke

eragingo dion bakoitzari, alegia. EAJk nabarmen senti dezakeela diote eta horregatik ere aritu dela hain zakar azkenaldian, urduritasunagatik, *fake news* delakoak ere erabiliz. EH Bilduri dagokionez, hainbat gairen bueltan sortu diren polemikek (hezkuntza legea, pandemiaren inguruko tendentzia negazionista batzuk, energiari buruzko eztabaida, abstentzio aktiboa aldarrikatzen duten sektoreak...) zer nolako pisua izan dezaketen ikusteko dago.

Espekulazioak gorabehera, alderdi nagusien arteko aldea mantentzen edo murrizten den jakiteko ez dugu denbora luzez itxaron beharko. Erantzuna, bihar. •

# ARGAZKIEN MEMORIA

## Ignacio Ansorena Funtsa, Durangaldeko 10.000 irudi baino gehiagoren legatua

📁 KULTURA / Nerea GOTI

Ukaezina da argazki zaharren xarma, hilezkor bihurtu baitituzte hainbat momentu; une berezietakoek soilik ez, egunerokotasunaren erretratuek ere informazio baliotsua ematen dute. Gerediaga Elkarateak milaka irudi biltzen dituen Ignacio Ansorena Olazaran Funtsa jaso du, memoria historikoari aurpegia jartzeko legatu handia.

**A**zken urteetan zehar egindako ikerketen hari luze bat Durangaldeko memoria osatzen joan da, hainbat gai eta garairi erreparatuz. Prozesu horretan, argazki zaharrek irudia eman diote historiaren hainbat pasarteri. Horren erakuslerik handiena, ziurrenik, Gerediaga Elkaratea da, hark bultzatutako eta zuzenean egindako ikerketengatik, baita horien zabalpenean egindako ahaleginarengatik ere. Haren webgunea, neurri handi ba-

tean, lan horren pantaila handi moduko bat da, eta eduki ugariarekin janzten joan den erakusleihoak 'Dokumentategia' izeneko atala du. «Durangaldeko edozein gairi buruzko informazioa batzeko helburu orokorarekin» sortu zen –dio Gerediagak berak–, liburu, aldizkari, eskuizkribu, grabaketa eta antzeko agirien gordailu izateko asmoz.

Orain, argazki bilduma handi bat gehitu zaio dokumentazio horri: funtsak Ignacio Ansorena Olazaran du izena, eta 10.000 argazki baino gehiago ditu. Dohaintza pribatu bat da,

Milaka argazki biltzen ditu Ignacio Ansorenak osatutako funtsak, baita garaiko agiri eta artxiboak ere; egunkarietako artikulak, adibidez. Ignacio Ansorena Olazaran (Gerediaga Elkaratea)



argazkilaritza pasio zuen durangar baten eskuetatik herriarren eskuetara igaro dena; legatu handi bat memoriaren eraikuntzan, adituen hitzetan, irudien antzinatasunagatik eta haiek jasotzen dituzten gai anitzengatik.

Funtsa bitxia da, oso bitxia, hainbat ezaugarri begiratuta. Lehenik, Ansorena ez zen argazkilaria ofizioz, baina arreta ematen du argazkilaritzarekiko bere zaletasunak. Arreta ematen du erretratu zaharrek bilduman duten presentzia handiak, baita Ansorenak berak irudi zahar horietan agertzen diren pertsonak identifikatzeko egindako ahaleginak ere.

Kamera soinean kalera ateratzea edota argazkietako pertsonaiei eta baserriei izena jartzea hobby moduko bat zen berarentzat, gogo biziz praktikatzen zuena, gainera, ingurukoek deskribatzen dutenez. Bere afizioaren neurriaz jabetzeko, Gerediagak nabarmendu du «egunerokoari ateratzen» zizkiola argazkiak: «Durango herriko txoko, bazter eta lekuei, ekitaldiei edota pertsonaei». Horri esker, «Durangoko bizimodua erakusten duten argazki zaharren bilduma handienetako bat» sortu zuen, elkarateak dioenez.

Funtsan dauden irudien antzinatasuna da alderdirik esanguratsuenetako bat. Bildumaren zati bat Sabino Ansorena aitak egindako argazkiek osatzen dute, eta horien artean, zaharrenak XIX. mendeko amaierakoak dira.

Ansorenatarren etxean diote aitarengandik jaso zuela Ignaciok erretratatzeko zaletasuna. Virginia Ansorena alabak ez du gogoan aitaren lehen argazki kamera hura nola heldu zen etxera, ez aitarena ez aititarena, baina garaira-

ko ez zen oso ohikoa etxean kamera izatea, adierazi duenez. Iraganera begira jarrita, argazkilaritza beti presente egon den etxe bati buruzko oroitzapenetara, uste du hori guztia fantasiazko zerbait bezala bizi izan zuela berak, «orain denok baikaude mugikorrez eta gailuz inguratuta, baina urte haietan ez zegoen bitzta ikusarazten zigun ezer, haren argazkiak ateratzen zizkigunik».


Aitarengandik jasotako pasio hartan formatzeko aukera izan zuen Ignacio Ansorenak gaztetan. 70eko hamarkadan argazkilaritza ikastaro bat egin zuen Bartzelonan, teknika eta trebetasun berriak garatzeko aukera eman ziona.

Funtsa ezagutzen dutenen arabera, material anitz hori altxorra da herriarentzat eta eskualdearentzat. Azken hamarkadetan Ansorenak berak hainbat ekitaldi eta ospakizunetan egindako argazkiak ere badaude; herriko irudiak, herriarrenak, baserriak... Eta ez horiek soilik: aitaren argazkilaritza-legatua XIX. mendekoak denez, Durangoko bonbardaketari buruzko irudi argitaragabeak ere baditu funtsak.

### IRUDI BIDEZKO KRONIKA

Bilduma aztertu duen lehen pertsonetako batekin hitz egin du GAUR8k, digitalizazio lanean ari den Patri Laisekarekin, hain zuzen ere; ikusi duenaren bidez funts zabal horretara hurbiltzeko asmoz, alegia. Gerediaga Elkarateko kideek nabarmendutakoaren arabera, herriko kronika historiko bat egin daiteke irudi horiek jarraituz.

Funts itzela dela diote, barnebiltzen duen denbora espazioagatik eta jorratzen duen gai sorta handiagatik. Oso iru-



di bilduma handia da, 10.000 ale baino gehiagokoa, eta adibidez, prentsako albisteak ere badaude urteetan gordetako material handi horren barruan. Hainbat tamainatako argazkiez gain, plakak edo diapositibak ere badira, besteak beste, eta egunerokoarekin lotutako hamaika gai: baserriak, pertsonak...

Aurrean dagoen lana sekulakoa da, orain artxibo osoa kontserbatzeko tratamendua, dokumentazioa eta digitalizazioa egin behar baita, eta material asko dago.

Lehen begiradan, adierazi du Laisekak, argazkilari afizionatua zen Ansorena, baina «oso ikuspegi berezia» zuena, «begirada ezberdin bat». Estiloaz gain, haren ikusmin handia ere nabarmendu du; ipurterrea zen, eta egunerokoari argazkiak ateratzeko afizio horri eta inguruko lekuekiko pasioari esker argazki kronika osatu bat eraiki zuen.

Aita hil zenean, gainera, haren bildumaren kargu egin zen, «baina berak badu oso bilduma sendoa», erantsi du digitalizazio lanetan diharduen eta arte plastikoetako eta

argazki-diseinuko goi mailako teknikaren ikasketak egiten ari den Patri Laisekak.

Orain arte ikusitakoaz aipatu du funtsaren zati handi bat, adibidez, Durangoko hainbat pertsonaren erretratuak osatzen dutela. «Bera nahiko ezaguna zen Durangaldean, jendeak bazekien argazkilaritza bere pasioa zela, eta familia askok argazkiak eman zizkionten. Badaude, adibidez, XIX. mendeko erretratuak, baina ez dakigu nortzuk diren, eta hor gabilta ia sinaduraren bat topatzen dugun», azaldu du.

Digitalizatzen ari diren funtsean, XIX. mendeko argazkiak daude, Sabino Ansorena Ignacioren aitak osatutako bildumari dagozkionak.  
Ignacio Ansorena Olazaran  
(Gerediaga Elkartea)

#### BASERRIAK ETA BONBARDAKETA

Formatu txikiko argazkien kopien artean Durangaldeko hainbat baserri ere ageri dira, eta horien ondoan, bizimodua, eskolak, ohiturak... protagonista dituzten beste irudi album batzuk daude. Laisekak azaldu du Juan Olazaran abadea osaba zuela, munduan zehar bidaiatu zuena, eta bilduma horren aztarna bat ere badagoela, Brasilgo eta munduko hainbat lekutako argazkiak daude eta.

Irudien artean, bestalde, bereziki preziatuak dira 1936ko gerra garaian egindakoak. «Ba-

daude Durangoko bonbardaketaren inguruko argazkiak, bonbardaketaren osteko Durango erakusten dutenak, inork ikusi ez dituenak eta inoiz publikatu gabeak», azpimarratu du Laisekak. Baina horien ondoan, gainera, oso ezagunak ez diren edo informazio askorik ez duten zenbait gertakiren argazkiak ere badira, eta horien artean, Durangoko Alde Zaharrean izandako sute handi bat aipatu du, adibidez.

Digitalizazio lanak luze joko du, eta artatsua izango da, Lai

## KARLISTEN GARAICO IRUDIAK ETA ERAIKUNTZA ZAHARREKOAK

Ignacio Ansorena Olazabal Funtsaren proiektioan sakontzeko, Jon Irazabal Gerediaga Elkarteko historian aditu ezagunarengana jo du GAUR8k. «Durangorentzat oso garrantzitsua da. Orain arte Foto Germanen artxiboa egon da, eta bertan garai bateko eraikuntzak, ekintza sozialak, pertsonaiak eta gerra osteko Durango ere ageri dira; honek XX. mende hasierako hainbat eta hainbat paisaia eta pertsonaia biltzen ditu. Nahiko garrantzitsua da, zeren eta honek irudia jartzen dielako askotan idatziz

gordetako pertsonaiei. Nire ustez, bai urbanistikoki, bai soziologikoki, zein gizarte modura, Durango ulertzeko oinarritzko osagaia da», nabarmendu du. Irazabalen ustez, irudi zehatz batzuen balioez haratago, «gizarte baten atal ezberdinak» erakusten dituzten argazkiak daude, eta garrantzi handia du bildumagile gisa egin zuen lanak –Durangorekin zuen loturaren emaitza, dioenez–. «Durangori buruzko edozer gordetzen saiatzen zen, baina bere afizio handia

argazkiak ziren», erantsi du adituak. Arreta ematen duten irudi horien artean, «XIX. mendeko argazki partida» aipatu du, non karlistaden garaikoak nabarmentzen diren, «ezagunak ziren beste irudi batzuen osagarri modura». Karlistadetan egindako erretratu ugari dago. «Garaian ohikoa zen hori, norberaren argazkia egin eta familiari bidaltzea. Argazki zahar horiek oso interesgarriak dira, garai hartako eraikuntzak eta urbanismoa ezagutzeko», dio Irazabalek.



sekak dioenez. «Familiak Gere-diagaren eskuetan utzi du bilduma eta artxiboa bueltan jasoko du, hitzarmenaren arabera; beraz, oso kontuan hartu behar dugu material horren zaintza, ukitu ez bagenu bezala itzuli beharra dago, familiaren artxibo pertsonala delako».

#### DIGITALIZAZIO LAN ARRETATSUA

Material horren zaintzak prozedura berezi bat eskatzen duela azaldu du. Oso prozedura zehatza, artxibo moten arabera tratamendu ezberdinak emanez: «Kontu handiz egin behar da. Diapositibak, plakak, negatiboak... daude, eta oso material sentsiblea da».

Horrez gain, bilduma handi eta anitz hori antolatzeke lan zehatza dago: «Fitxak osatu behar dira eta hainbat atal bete behar da izen-abizenei, pertsonaiei, topografiari... erreparatuta. Oso ondo sailkatuta egon behar du, material hori guztia publikatu egingo delako, eta tematika zabal bat dagoelako». Multzo handi batzuk aipatu ditu: Sabino Ansorenaren argazkiak, gerra garaiko irudi eta dokumentuak, Ignacio Anosorenaren bilduma edota Durangaldean izandako ekitaldi nagusien in-gurukoa.

Hain potentzial handiko funts batek aurrerantzean

izan dezakeen ibilbideaz galdetuta, aukera sorta oso zabala dagoela dio Laisekak. «Oso funts interesgarria da historia-gileentzat, Durangaldeko historia goitik behera lantzen duelako eta azkenean, ikerketak, liburuak, argitalpenak, baita zabalkundeak ere egiteko bidea zabal daitekeelako. Kalitaterik handienez gordetzeko eskaneatzen ditugu eta horrek aukera ematen du erakusketetan erabiltzeko, baita partekatzeke ere, erresoluzio onenarekin».

Laisekak lan handia dauka aurretik, eta onartu du maila profesionalean erronka handia dela, baina «argazkilaria ere naizen heinean eta argazkilaritza maite dudalako» enkargu hau pribilegioa dela dio, «argazkiak, karreteak, negatiboak, plakak, diapositibak...» tratatzeko aukera baitu.

Virgina Ansorena alabaren iritzi, irudi horiek kontserbatzeak zabaltzen dituen bideak aitaren lanaren luzapen moduko bat dira; pasio horren segida bat, herriari oso lotuta zegoen gizon batentzat, gainera.

#### JAKIN-MIN HANDIKO GIZONA

Aitaz egiten duen kontakizunetik hurbildu nahi izan dugu Ignacio Ansorenaren gaztaroa, argazkilaritzarekin izan zuen harreman bitxira. Izan

Gerediaga Elkartearen eskuetan utzitako bildumaren irudi zaharrenetako batzuk. Ignacio Ansorena Olazaran (Gerediaga Elkartea)



ere, alabak kontatu duenez, askotan pentsatu du «mundua lente batetik ikusten zuela aitzak». Irribarre batekin hitz egiten du aitaz eta harekin oso harreman berezia zuela aitortu du. GAUR8ri kontatu dio pertsona geldiezina zela. Entzumenean arazo bat izan zuen jaiotzez eta uste du horrek, agian, eragina izan zuela bere izaeran, «oso gaztetatik

jakin-min handiko pertsona izan zelako, behatzaile handi bat».

Esan bezala, aitarengandik jaso zuen Ignaciok argazkilaritzarekiko pasioa: aititari argazki kamera bat oparitu ziotela gogorarazi du Virginia Ansorenak. Pentsa zer izango ote zen Ignacio Ansorena haurraren ikuspuntutik munduari argazkiak egin ahal izatea. «Ordura arte ia ez zegoen iraganaren irudirik, oroitzapenak baino ez zeuden», dio.

«Zaila da azaltzea hitzekin argazkilaritza norainoko pasioa zen berarentzat», dio. Bizitza osoan landu eta gorde zuen pasioa. Eta familia osoaren oroitzapenak zeharkatu dituen. «Denari ateratzen zion argazkia; bereziki baserri pertsonaiekin baino gehiago. Baina, gainera, gure bizitza

**Argazkiez gain, erretratu askoren inguruan egindako dokumentazio lana nabarmentzeko da: irudietan agertzen diren pertsonen izen-abizenak jartzeko**

**Irudi zaharrenek gertakari ez hain ezagunen inguruko informazioa eman dezakete, baita Durangok berak eta eskualdeak izandako eraldaketari buruzkoa ere**



osoa fotografiatu du. Eta bada gauza bitxi bat: izena jarri zien argazkietako antzinako ehunka pertsonari, horretarako baserriz baserri joan behar bazuen ere», azaldu du.

#### BASERRIZ BASERRI

Hautzaroa baserriz baserri pasatu zuela gogoan du Virginia Ansorenak, atez ate, ia pertsona horiek ezagutzen zituzten. «Baten bat geratu zitzaion identifikatu gabe, baina uste dut ehunka erretraturi jarri ziela izena. Horri esker, senide baten irudia gorde zuten batzuek. Ez dakizu zenbat kopia egiten zituen! Askotan gertatzen zitzaigun kalean ibili eta pertsona bat ikusita, harengana joatea senide baten irudia zeukala esatera. Horrelako egoera asko ezagutu dugu», oroitu du.

Musika klasikoa eta argazkiak maite zituen. Beraz, bi zaletasun horiek uztartuz, denbora luzea pasatzen zuen albumetara begira.

«Txikitan Mikeldin bizi ginen. Ez dakit argazkia non dagoen, ezin izan dut aurkitu, baina argazkian ahate bat ageri da, inguruko baserriren batekoa izango zen ahate hori. Pentsa Durango nola aldatu den! Argazki horrek, adibidez, izugarritzko aldaketa erakusten du, eta horren moduko asko daude, Durango zahar-zaharra

erakusten dutenak, eta garai-kideago batzuk ere badira, baina guztietan dago herriak bizi duen eraldaketari buruzko informazio zehatza», adierazi du. Beste detaile bat aipatu du: «Guri argazkiak egiten zizkigunean, non egin aukeratzen zuen, gure atzean ikus zitekeena ere jasotzeko».

Desagertutako hainbat leku erakusten dituzten bildumako irudiek memoria osatzen lagun dezaketela azpimarratu dute adituek.

Ignacio Ansorena Olazaran  
(Gerediaga Elkarteak)

Ez daki digitalizazio lanak bilduman noraino heldu diren, baina gogoan ditu aititak egindako irudi batzuk. Buruan ditu, adibidez, garaiko hegazkinak erakusten dituzten irudiak, aireratu behar zutenean pilotuekin gertakariren bat izan zenekoak, matxinada moduko bat... «Argazki historiko

asko dago; bombardaketaren garaikoak eta oso bitxiak. Agian, irudi horiei esker gertakari horietako batzuen inguruko memoria berreskuratu ahal izango da», planteatu du Virginia Ansorenak.

Aitak ez zuen ezer esana utzi bildumak izan behar zuen ibil bidearen inguruan; seme-alaben eskuetan jarri zuen. Gerediaga Elkarteari ematea aitak Durango eta inguruarekin zuen loturari erantzuteko modu bat dela uste du Virginia Ansorenak. Horren harira, gogoratu du bost anai-arrebetan gazteena zela aita, euskara ama-hizkuntza jaso ezin izan zuen bakarra, debekuaren urte haietan, eta horrek samina sortzen ziola. «Euskal Herria sakonki maite zuen, euskal kulturarekin lotutako guztia», erantsi du.

«Beti esaten dut bere begiak lente bat zirela, munduari ez ziola begiratzen guk begiratzen diogun moduan, argazkiak ikusten zituela», dio. Utzi duen funts handi horren erabilera publikoa Ignacio Ansorena Olazaranentzako omenaldi moduko bat da, irudi preziatu horiek herritarrekin partekatuz, transmititzen duten memoria gordez, eskualdearen kronika historikoa eginez eta memoria dokumentatuz.



# «MAKE BILBAO GREY AGAIN»

Niko Vazquezek 80ko Bilboren albuma osatu du, memorian eta adimen artifizialean oinarrituta

**G**rafista da, musikari es-tu lotutako grafista. Azken 30 urteotan lanbide izan du sorkuntza grafikoa eta bidaide, musika. Orain ere asetero geratzen da bere musika taldearekin entseatzeko, Mortorsex taldearekin.


«Umetatik musika arnastu dugu gure etxean eta nire bizitzaren parte izan da betidanik. Gure etxeko objekturik prezia-tuena disko-jogailua zen. Bederatzi anai-arreba gara eta etxean bost bizi ginen. Goizetik gauera sekulako lehia izaten genuen disko-jogailua zeinek harrapatuko. Musikarekin eta musikarako bizi ginen denok. 70eko amaieran 80ko hasieran, punkaren eztanda gertatu zenean, erabat harrapatu gintuen. Vulpess taldekoak nire arrebak dira. Garai hartan guk ere musika talde bat sortu genuen: Me Cago en Dios (M.C.D.). Gure etxean musikak pisu handia zeukan, gure bizitzaren parte da».

Isiltasunik gabeko etxe hartan, amaren pazientzia eta patxada nabarmentzen ditu Vazquezek. «Gure amaren pazientzia harrigarria iruditu zait beti. Gai zen egunero 18 urtez disko-jogailua jasateko, oso musika desberdinekin gainera, nork bere gure gustuak zituen eta. Amak beti utzi digu espazioa, gure zaletasunak errespetatu ditu beti».

Musikan lehen urratsak eginen ari zen garaian hasi zen Vazquez musika talde sonatuen portadak diseinatzen. Eskorbutoaren "Impuesto Revolucionario", La Pollaren "Toda la puta

📁 KULTURA / Amagoia MUJKA TELLERIA

Memorian dauka umetako auzoa. Bilboko Irala eta Errekaldeko lokatzetan hazitakoa da, azpiegitura gutxi eta elkartasun handiko auzo giroan. Niko Vazquez grafistak ibilbide luzea egin du eta beti izan du bidaide teknologia. Orain adimen artifizialaren erreminta erabili du oroimenean eta azalean daukan auzoa irudikatzen.



Niko Vazquezek ibilbide luzea osatu du grafista modura eta beti izan du bidaide teknologia.  
Marisol RAMIREZ | FOKU

vida igual", Vulpessen "Me gusta ser una zorra" edota Parabellumen "Adelante sin cabeza" lanei Vazquezek jantzi zien portada. «Grafismoa eta edozein sorkuntza lan elkarriz lotuta daudela iruditzen zait, inoiz ez ditut bereiztu. Niretzat grafismoa adierazpen modu bat da, musika den bezala. Artea da eta dena lotuta dago».

Londresko Ravensbourne College ikasi zuen Komunikazio

Bisuala, Aldundiaren beka bat zela medio. 80ko hamarkada amaieran iritsi zen Londresera eta han izan zuen lehen harremana ordenagailuekin. «Betidanik gustatu izan zait teknologia eta berrikuntzak oso gertutik jarraitu izan ditut. Londresen aukera izan nuen teknologiaren azken berrikuntzak ezagutzeko eta gerora oso lagungarria izan da grafista bezala egin dudana ibilbidean».

Londresen ikasi arren, M.C.D.koekin harremana izaten jarraitu zuen. «Nire taldearekin harremana etengabea zen, le-tretan edo musikan kolaboratzen jarraitzen nuen. 'De ningún sitio a ninguna parte' diskoaren portada Javi de la Fuente eta biok egin genuen. Azala erronka teknologikoa izan zen garai hartarako (1990), ordenagailu ingeles oso garestia erabili baikenuen *collage* bat egin ahal izateko. Orain bost minutu besterik ez dira behar, baina garai hartan prozesuak orduak eta orduak irauten zuten».

Teknologiak betidanik deitu izan dio arreta eta bidelagun izan du sortzeko garaian. «Gogoan dut Londresen ikasten ari nintzela ikusi nuela lehendabiziko Mac-a, Apple-k atera zuen lehen ordenagailua. Esan zidaten 'ikusi, hemen botoi honi eman eta piztu egiten da'. Bos-pasei hilabetez erabat kontrolatzen nuen eta lagunak etortzen zitzaizkidan traste hark nola funtzionatzen zuen galde-tzera. Betidanik interesatu izan zait teknologia eta gaztetatik dirutza gastatzen nuen hilabetero puntako teknologia ezagutzeko. Hain arraroa zen eta magia eginen zuten hizkuntza hura ezagutu nahi nuen. 90eko hamarkadaren erdialdean lagun batzuekin batera muntatu nuen EITBko lehen webgunea. Etorkizuna hori zela esaten genien eta denek harrirituta begiratzen zituzten».

Vazquezentzat, beraz, teknologia erreminta interesgarria da: «Beti topatu behar da zure lanean aplikatzeko modua. Ez daukat inolako konplexurik erreminta berriak deskubritzeko, esploratzeko eta erabiltzeko. Hori bai, erreminta horiek erabiltzeko, garrantzitsua iruditzen zait ikasketa oinarri indar-





tsu bat izatea. Londresko eskolan, adibidez, ez ziguten uzten ordenagailuak erabiltzen tipografiak ikasteko garaian. Eskuz lantzen genituen tipografia guztiak eta hori bada ikasketa oinarri sendo bat lantzea. Ordenagailuekin gauza bera da. Ordenagailu bat izatea eta punta-ko teknologia eskura izatea ez da nahikoa lan txukun bat egiteko; magia egin daiteke edo zaborra. Eta normalean, zaborra egiten da. Sorkuntza lantzeko eta adierazpen modu berriak topatzeko bideak badaude, bai-

na horiek ere landu egin behar dira».

#### «MAKE BILBAO GREY AGAIN»

Bere ibilbide osoan teknologia-ekin izan duen harremanetik abiatuta, aise ulertzen da «Make Bilbao Grey Again» irudi sorta. 80ko hamarkadako Bilboren arima harrapatzen saiatu da Vazquez adimen artifizialaren tresnak erabilia sortu duen proiektuan. Bi tresna erabili ditu nagusiki: Midjourney eta Leonardo izeneko adimen artifizialeko tresnak. Photoshop

Lerroon gainean, Vazquezen sorkuntza batzuk. Guztiak liburu batean bildu ditu. Aste gutxitan argia ikusiko du liburu horrek.  
NIKO VAZQUEZ

programarekin findu ditu beste bi tresnek sortutako irudiak.

«Adimen artifiziala asko gartzatzen ari da denbora laburrean. Ni hasi nintzenetik dagoeneko programa horietako batzuek beste bi bertsio berri sortu dituzte eta batetik bestera hobekuntzak nabariak dira». Funzionamendua honako hau da: testu baten bitartez deskribatzen da sortu nahi den irudia. Parametro batzuk zehazten dira; nolabait, sistema gidatzen duzu buruan daukazu irudia sor dezan. «Inoiz ez duzu lor-

tzen benetan nahi duzuna. Zabor asko sortzen da. Fintzen eta fintzen joan behar duzu buruan daukazu irudira gerturatu arte. Sortzen diren ehun iruditik hamar baino gutxiago gerturazten dira nahi duzunera».

Zabor ugari eta tartean-tartean, magia. Hori da, Vazquezen hitzetan, teknologiaren funtzionamendua. «Adibidez, Bilboko seriea osatzeko, dagoeneko 10.000 bat irudi sortu ditut eta horietatik 150 hautatu ditut; gainontzeko %95 inguru baztertu egin ditut. Zabor asko sortzen da. Baina adimen artifizialak magia egiten duenean, buruan daukazunera gerturazten denean, sekulakoa da. Programa horiek bertsioak berri-zen ari dira etengabe. Aldiro asko hobetzen da erresoluzioan, baina estetika ere aldatu egiten da. Eta hasieran sortu nituen irudi batzuk berri-zen egiten ari naiz orain, bertsio berrietan, irudi sorta guztia koherentea izan dadin. Adimen artifiziala abiada ikaragarrian ari da eta akatsak sortzen dituen ere sekulakoa izaten dira; batzuetan erabat surrealista eta besteetan, harrigarri ederrak. Beti harritu nau programatzaileek makinari gizatasun begiratu hori ematea lortzeak».

80ko hamarkadara garamatza Vazquezek «Make Bilbao Grey Again» proiektuarekin. Hainbat erakusketatan ikusgai izan da Vazquezen lana azken hilabeteotan eta aste gutxi barru argazki liburu bat emango du argitara serie horretako 150 irudi ingururekin. Zorrotz argitaletxeak argitaratuko du lana.

«Nire haurtzaroaren eta gaztaroaren album grafikoa egin dut. Irudien bitartez, umetan bizi izandakoa kontatzen saiatzen ari naiz. Ni Irala eta Errekalde artean hazi nintzen. Erabateko zaborte-geiak ziren,



lokatzez beteak, etxebizitza oso prekarioak zituzten eta ez zeukaten azpiegiturarik, ez eskolarik ez kiroldegirik. Dena taillerrez eta fabrikaz beteta zegoen. Hor hazi nintzen ni. Proiektu honekin argazki album bat osatzen saiatzen ari naiz, ez baitaukat garai hartako irudirik. Nire memorian jasota dauden irudiak berregiten saiatu naiz, koloretan gainera. 70eko eta 80ko hamarkaden berrikuspen oso pertsonala da».

Pertsonak, auzotarrek, garrantzia daukate Vazquezen lanean. «Auzoei bizia pertsonak ematen diete, horretan ez daukat zalantzarik. Gu lokatzetatik gatoz. Bilbok orain postaletako hiri bat dirudi, baina azpian, zimenduetan, bizirik dago garai batean izan zen lokatza. Eta lokatz horietan pertsonak bizi ginen. Ez da ikuspegi ezkorra, nik ez dut horrela ikusten. Lokatza

eta kutsadura bazeuden, baina baita auzo bizi-bizirik ere. Elkartasun handia zegoen, auzo izaera bizia, frankismoaren garai beltz hartatik ateratzeko bultzada kolektibo bat...».

Vazquezen lanak lokatzetan bizirik zegoen herri bat irudikatzen du, elkartasunezko taupada bat. «Umetan bizi esperientzia oso indartsu bat izan genuen guk. Ikasketak nork bere kabuz egiten zituen akademia batean. Gero akademia ho-

**«Nire memorian jasota dauden irudiak berregiten saiatu naiz, koloretan gainera. 70eko eta 80ko hamarkaden berrikuspen oso pertsonala da»**

**«Bilbok orain postaletako hiri bat dirudi, baina azpian, zimenduetan, bizirik dago garai batean izan zen lokatza. Eta lokatz horietan pertsonak bizi ginen. Elkartasun handia zegoen»**

Bere lanetan 80ko hamarkadako Bilbo irudikatu nahi izan du grafistak. Musikak garrantzia berezia dauka bere bizitzan eta bere lanean.  
NIKO VAZUQUEZ



ri Errekaldeberriko herri unibertsitatea izan zen. Neskek eta mutikoek elkarrekin ikasten genuen akademia hura baliabiderik gabeko langile familiei zuzendua zegoen. Oso proiektu aitzindaria izan zen. Deustuko ikasleek eta apaiz batzuek ematen ziguten klasea ahal zuten bezala eta ahal zuten tokietan. Batxilergoko lau urteak horrela egiten genituen, nork bere kasa eta gero azterketa bat gaingitu behar izaten genuen ikasketekin aurrera jarraitu ahal izateko. Akademia hura auzoaren proiektua zen eta autokudeake-

tan oinarrituta zegoen erabat. Pentsa, larunbat goizetan kamioi bat uzten ziguten eta auzo ibiltzen ginen papera biltzen. Gero, bildutako papera saldu eta diru hori akademiara bideratzen genuen. Santa Agendan kantuan eta eskean aritzen ginen, antzezlanak egiten genituen... denetarik egiten genuen akademiarako dirua biltzeko. Familiak eta auzotarrak erabat inplikaturik zeuden proiektu horietan. Klase kontzientzia eta elkartasuna askoz biziago zeuden garai hartan, nahiz eta lokatzetan bizi».

## Kantatu nirekin batera

**Miren  
AZKARATE  
BADIOLA**

**H**ausnarketa eguna dugu gaurkoa, hauteskunde egunaren bezpera. Karta guztiak jada mahai gainean daude, argi eta garbi, bakoitzaren eskaintzekin eta proiektuekin.

Alderdi politikoekin dugun harremana edozein harreman mota (lagunartekoa, senitartekoa, lan esparrukoa...) bezalakoa da, finean: batzuek maitasun itsua diote, besteek gustuko gauza batzuk ikusten dizkiote baina beste batzuk ez, batzuetan haserre daude eta besteetan pozik harekin... Baina maite dugu eta harekin nahi dugu egon.

Ezin omen da kanpainarik egin egun honetan eta beraz, ez dut egingo. Baina inork ez du esan ezin denik kantatu. Beraz, irakurle maitea, gaur mesedetxo bat eskatu nahi dizut. Kantatu nirekin ondorengo abestia; ez badakizu doinua, galde-tu ondokoei eta animatu haiek ere zurekin eta nirekin abestera. Musika taldeari baimen diferitua eskatuko diot eta esker-rak abesti hau sortzeagatik. Hala ere, modaz pasatzea ere gustatuko litzaidake, alde batetik, seinale ona litzateke eta!

Denak prest?

«Jaio ginen bai, guda baten erdian, urteak pasa, ta berdinetan gaude. Ez esan

inoiz, hau bukatua dago. Ez inoiz pentsa, bidea amaitu da.

Nik ez diat inoiz esango, hire egin beharra zein den, nik aspaldi egin nian aukera: jo ta ke irabazi arte!

Su ta gar, borrokan gelditu barik. Jo ta ke, gogor etsaiari! Su ta gar, etengabe gau ta egunez, jo ta ke, gogor etsaiari!»

Bada, horixe, ez dago maitasun perfekturik, izan lagun, bikotekide, lankide, ama, alderdi politiko... Baina abesti horrek, niri bezala, oilo ipurdia jartzen badizu eta dioenarekin bat egiten baduzu, goazen denok batera kantatzera eta dantzatzera, eta bihar... aurrera bolie!!! •

## Vinicius eta gaizki ulertutako pasioa

**Asier AIESTARAN**

**A**skotan gogoratzen naiz nola, duela urte dezente, Ameriketako Estatu Batuak oso ongi ezagutzen dituen lagun batek bertako kirol estadioetako giroa jartzen zidan Europan ere imitatu beharreko erdutzat. Familia osoak batera, bazkaria edo afaria hartuta, egunpasa egitea balitz bezala, gaztetxoentzako denbora-pasak hutsarteetan... Nik, ordea, aisialdi eredu artifizialtzat jotzen nuen hura eta miresmenez ikusten nituen munduko futbol zelai handietako harmailtan biltzen ziren jendetzak, bengalen keak ezkututzen zituen miseriez ezertxo ere jakin gabe.

Gaztetako txoro-haizeak amaitzen joan ahala, ordea, gero eta argiago ikusi dut lagun hark arrazoi zati handia zeu-

kala. Beharrezkoa dela jendarteak hausnarketa kolektibo bat egitea kirola zer den eta zertarako balio behar duen argi uzteko. Ondo pasatzeko, norbere onena emateko, albokoari laguntzeko, bizitzako apustueta batzuetan irabazi eta besteetan galdu egiten dela ikasteko, inspiratzeko... Baina ez, mesedez, askotan ikusten den moduan, haserre eta estresak parekoarekin ordaintzeko.

Adinean aurrera joan ahala, gero eta ulertezinagoa egiten zait astean zehar eredugarria den pertsona hori harmaila batean eseri eta bere onetik irtenda ikustea; gero eta deserosoagoa egiten zait partida batean jendea epaile bati oihuka entzutea (irainak bota ala ez, berdin zait); eta zer esanik ez, jarrera

horiek gaztetxoaren arteko neurketa batean gurasoen partetik iristen badira.

Gaizki ulertutako pasioa izan daiteke, eta horregatik kontuz ibili behar da bidaltzen diren mezuekin ere. Gogoan dut Realaren eta Erromaren arteko Europa League-eko itzulerako partidari begira, Imanolek nola eskatu zuen «izugarritzko ekaitza» sortzea, «30 metroko olatuak» izango zituena. Borondate onenarekin esango zuen, baina agian ulertu behar dugu kirola hori baino sinpleagoa dela: aurkaria baino hobeak bagara, ziur aski irabazi egingo dugu, eta bestela, galdu.

Ziur asko, kirolatik harago doazen arazoak dira, sakonagoak, baina horiek konpondu bitartean saia gaitezen kirola kiroltasunez errespetatzen. •



**Itziar ELIZONDO IRIARTE**  
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

## Ez ba!

**G**ure mundu hiperaktiboan, «ez» esaten jakitea funtsezko trebetasuna da ongizate emozionala babesteko eta akidura saihesteko. Remedios Zafrak dioen bezala, denbora daramagu geure burua ustiatzen, gogotsu. Neoliberalismoaren trikimailuak jendartearen disko gogorretan itsatsi zaizkigu arrakasta handiz. Adibidez, produktibitatea eta arrakasta baloratzea, askotan lan-eta dedikazio-maila handiekin lotuta. Ez diegu besteei huts egin nahi, eta espektatibak bete ezean sor litezkeen ondorio negatiboen beldur gara. Beldur horrek geure buruari gehiegi eskatzera eta muga egokirik ez ezartzera garamatza. Eta beste batzuetan ere perfektionismoak eraman gaitzake geure mugetatik haratago saiatzera.

Batik bat autonomoa zarenean tentu handiz ibili behar duzu horren mende ez egoteko. Askotan, mugarik jarri gabe, bezeroak ondo zaindu nahi dituzunez, ez dagozkizun zereginak zeure gain hartzen dituzu. Akats galanta. Hori egitean, zeure beharrak ez dituzu kontuan hartzen, eta azkenean neke profesionalaren sindromea jazan dezakezu.

Zer egin? Ausartu «ez» esatera. Asertibotasuna erabiliz ezetz esateak norberaren konfiantza eta ahalduntzea indar-

tzen du, ekintza askatzailea baita. Hor dago koska, eta ez gara horretan trebatuak izan. Eskolan ez ziguten halakorik irakatsi, eta oro har ez genituen ondo komunikatzeko eskolak jaso. Beraz, bizitzan zehar ez badugu geure kasa ikasi, besteekin kontu arazotsuak trukatu behar ditugunean ez gara ondo moldatzen.


**Nolanahi ere, hor dabil buruan autoeskakizunaren zorroa erabakien zirrikituetan.** «Hau egin dezaket eta beste. Ez da hainbesterako izango. Aukera hori galtzen badut ez dit berriro deituko...». Betiko mantra.

Bale. Nahikoa da. Iritsi da unea.

Ez zara gorpil zoro produktibista, autoustiatzaile eta neketsu horretan gehiago sartuko. Nahikoa duzu daukazunarekin. Bezeroak galdu eta lortzen dira. Mugak jarriko dituzu, «ez» esanez modu argi eta zuzenean. Agindutako zereginak egin dituzu. Eta, batez ere, ez ezazu zeure burua zalantzan jarri, zure lana ondo egin baituzu, emaitzek erakusten duten bezala.

Erraza dirudi, baina bizitza erdia eman duzu jarrera hori zureganatzeko. Berandu al da?

Ez ba! •



Ez diegu besteei huts egin nahi, eta espektatibak bete ezean sor litezkeen ondorio negatiboen beldur gara. KUBKOO | GETTY IMAGES

{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

# Hauteskunde bezperako hausnarketa, arbolatik

**E**gunero bezalatsu, lanera iritsi nintzen, atzo beharbada burua ohi baino kargatuago eta praka barrenak lokaztuago, hauteskunde kanpaina zela eta. Kaskoan hazka egin eta hautagai bat harrapatu nuen ezkerreko hezur parietalaren eta tenporalaren artetik hanka egin nahian, ez dakit nire botoa nahi zuelako edo ez zuelako nahi. Esan nion bertan geratzeko, isilik mesedez, gaur erabaki behar nuela, hausnarketa eguna denez gero.

Iritsi nintzen lanera eta ez nuen lankiderik ikusi. Goiz samar zen artean. Berandu gabe hasi ziren iristen, baina ez lankideak, nik ezagutzen ez nituen pertsona batzuk baizik. Eta txakur bat. Sartu ahala, denak begira geratzen zitzaizkidan, niri ezer esan gabe baina euren artean keinuka nor arraio nintzen galdetuz, okerreko lekura sartzeagatik kargu hartzen bezala. Goiz osoan ez ziren konturatu okertu zirela, eta berriketan jardun zuten gogotik.

Eguerdian, ostiralero bezala, bazkaltzera jaitsi nintzen lantokiaren pareko tabernara. Aldatuta zegoen. Atzo jakin nuen janari begetarianoa ematen dutela. Bazkari normala ere ematen dute, ordea. Tira, ni ez nago barazkijaleen aurka; are gehiago, lagun begetariano bat daukat, egia esateko arraro samarra baina errespetatu egiten dudana.

Kontua da nire lanera ez dakit zertara sartu ziren horien bidez jakin nuela Valentzia futbol taldearen zaleen artean, Estatu espainoleko futbolzaleen artean eta mundu osoan arrazakeria arazo bat dagoela.

Futbol talde guztietan daude tximinoak (beltzak, zuriak eta kolore guztietakoak), marikoiak, putazoleak, lapurrak... eta futbol zelai guztietako harmailtan, gorila ugari. Horrelako irainak beste taldeetakoiei esaten zaizkie, jakina, horretarako dira, eta ez atzo goizetik. Beraz, zaharrak berri.

Vinicius Jr. delako batek futbol zelaietako belarrak harrotu ditu. Iraindu egin dute, eta ez da lehenbizikoa izan, talde txiki edo pobreetako jokalariei mespretxuz begiratu eta iseka egiten dien zelai gehienetan iraindu izan dute. Nire sasi-lankideek esan zuten, bere taldeak Osasunari gola sartutakoan, futbolari horrek, lagunekin ospatu beharrean, aurkariei iseka egin zien. Batek esan zuen horrek ez duela justifikatzen bera iraintzea. Txakurrak ez zuen txintik esan. Nik ere ez.

Arazoa ematen duena baino handiagoa da, ordea. Egunkari batean irakurri dudanez, arrazismoak, Espainiako arrazismoak, 2030eko Mundialerako hautagaitza eragotz lezake. Hori bai arazo larria.

Europa –eta mundu osoa– Estatu espainolari begira dagoela diote. Arrazismo kontuetan oso zorrotz eta

Arrazismo kontuetan oso sentibera omen da Europa. Mediterraneotik Europara iritsi ezinik bizia uretan uzten duten milaka pertsonak errespetu osoz tratatzen ditu; ez die «tximino» esaten, alegia

sentibera omen da Europa. Pentsa, Mediterraneotik edo Atlantikotik Europara iritsi ezinik bizia uretan uzten duten milaka pertsonak errespetu osoz tratatzen ditu; ez die «tximino» esaten, alegia. Beraz, tipo aberats bat klub arteko lehian (lehia sanoan) iraindu dutelako neurriak hartu beharko lituzke.

Eta horrenbestez, nire auzoko tximino, gorila, marikoi, puta eta miserableon izenean, hausnarketa egun honetan neure esker ona erakutsi beharko diot dagoeneko nire arbaso guztiek eta nik mendeetan irabazi dugun guztia baino gehiago irabazi duen tipo horri, futbolariak jasan behar duten hain problema larriaz mundua jakinaren gainean jartzeagatik. •

# IKERLARIEN MINA

## Populazioaren osasun mentalak, 80 puntu; doktoregaienak, 52

**B**eñat Garaio eta Eider Saragueta ikerlariak lankide izan dira hainbat proiektutan. Elkar ezagutu zutenean tesia amaitu zuen Eiderrek eta Beñat bukatzen ari zen. «Oso harreman estua egin genuen. Eiderrek tesi gogor bat pasatu zuen, eta nirea ere oso-oso gogorra izan zen. Elkarri laguntzen hasi ginen», oroitu du Garaioak GAUR8rekin elkarriketan.

Ohartu ziren ez zela gauza isolatua eta doktoregai gehienek hagitz gaizki pasatzen zutela. Gaia plazaratu behar zutela erabaki zuten. Horrekin batera, prebentzio eta kontzientzia lana egitea zen asmoa, egoerari buelta emateko.

Martxoan, hitzaldi bat eman zuten bi ikerlari gazteek Euskal Herriko Unibertsitateko Letren fakultatean, bertako doktoregaiak sufritzen ari zirela erran zitelako. Doktorego programa txiki bat da, eta batzuk bajaran zeuden edo egonak ziren. «Oso erabilgarri

**ZIENTZIA /** Maider IANTZI GOIENETXE

Badago unibertsitatekoa bizimodu ona den ustea, baina ez da egia. Izan ere, OPIK taldekoek egindako ikerketaren arabera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako populazioak 80ko puntuazioa du osasun mentalaren indizean; EHUko doktoregaiak, ordea, 52koa. Beñat Garaio doktoreak gako eta konponbide batzuk eman dizkio GAUR8ri.

egin zitzaie doktoregaiei, eta gu ere gogoarekin gelditu ginen aurkezpen hori leku gehiagotan baliatzeko».

### ANTSIETATEAK ETA DEPRESIOAK JOTA

Hala prestatu zuten Ikergazte-rako solasaldia: «Ikertzaileen osasun mentala: gakoak eta konponbideak». Joan den astean izan zen, maiatzaren 18an, eta tamalez Saraguetak ezin izan zuen parte hartu ezuste bat izan zuelako. Maider Galardi doktoregai eta kazetariak hitz egin zuen azkenean Garaioarekin batera.

**Ikertzaileen osasun mentalaz aritu ziren Ikergazten Beñat Garaio eta Maider Galardi, lehen pertsonan, gakoak eta konponbideak eskaintzen. Ikertzaileak izan zituzten entzule eta bizipen eta ideiak partekatzeko momentua ere izan zen.**

Jon URBE / FOKU

UEUren kongresua ikertzaile gazte euskaldunen topaleku handia da, eta plaza ezin hobe izan zen bizipen eta ideiak konpartitzeko. «Oso ondo joan zen. Eguneko azken saioa zen eta hala ere, jende asko gelditu zen. Giro goxoa sortu zen, harrera ona izan genuen», kontatu du Garaioak.

Lehenik, ikertzaileen osasun mentala baldintzatzen duten adierazle eta datu batzuk eman zituzten. Yolanda Gonzalez buru duen OPIK ikerketa taldeak 500dik gora erantzun lortu ditu EHUko 3.100 dokto-

regaien artetik. Ikusi dutenez, erdiek antsietatea dute eta %38k, depresioa. Arloz arlo, zientzietakoek depresio gehiago dute, eta gizarte zientzietakoek, antsietate gehiago.

Osasun mentalaren indizean, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako populazioak 80 puntu ditu; EHUko doktoregaiak, ordea, 52. Badago unibertsitatekoa bizimodu ona eta eroso den ustea, baina egoera guttiz bestelakoa da. Auzia larria da, eta pixkanaka-pixkanaka sozializatzen ari da. Martxoaren 15ean izan zen lehenbiziko hitzaldia, eta egun horretan bertan EHUk kanpaina hasi zuen osasun mentalaren inguruan.

### PREKARITATEA ETA BAKARDADEA

Beñat Garaioak azaldu digunez, badaude aldagai batzuk doktoregaien egoera berezi egiten dutenak. Prekaritatea da bat, doktoregaien soldatak hagitz urriak direlako. Lan mota da bertze bat, benetan bakartia delako. Gainera, «nahiko gogorra eta lehiakorra izan daitekeen sistema batean behe-



beheko mailan kokatzen zara, unibertsitatea oso hierarkikoa delako. Gaur egungo gizarteak dedikazioa eskatzen du, exijentzia handia dago, eta lan karga handiagoa. Ondorioz, gehiago sufritzen dugu».

#### BALDINTZAK OKERTU DIRA

Unibertsitateko baldintzak ere ez dira berak: «Duela urte batzuk errazagoa zen sartzea eta karrera egitea. Lan baldintzak hobeak ziren. Orain, lanpostu egonkor bat lortzeko aukera murriztagoa da eta esfortzu handia eskatzen du. Tesia egiten duzu, baina ez dakizu gero unibertsitatean lan egiteko aukera izango duzun, eta zein baldintzatan».

Inguruan denetik ikusten du: master amaierako lana egin, egoeraz jabetu eta zuzenean unibertsitateetik aldentu den jendea; tesia egiten hasi, zer zen ohartu eta utzi duena; tesia amaitu duena eta sufritu duenaren ondoren eta aurrean duena ikusita, unibertsitatean lanik ez egitea erabaki duena, eta unibertsitatean jarraitzen duena baina guztiz erreta eta baldintza txarretan.

#### «TESIAK BIZITZA IZORRATU DIT»

Beñat Garaio Mendizabal gasteiztarra da eta freelance bezala dabil ikertzen eta proiektuak garatzen, Bizierri IGB elkartearen bidez. Doktorea da. Hona hemen bere tesiaren izenburua: «Euskal Eskola Eleanitz arrakastatsua identifikatzen: D ereduko eskolen indarguneak arakatzeko kasu azterketa bikoitza».

«Adinekoekin ariketa fisikoa egitea zen nire lana, oso baldintza onak nituen, baina nire bokazioa deskubritu nuen: hizkuntza gutxituak. Ilusio guztiarekin hasi nintzen; behala nabaritu nuen, ordea,



lan karga handia, dena eman beharra. Orduan pentsatu nuen tesia eginda unibertsitatean lan duin bat lor nezakeela. Beka bat eskuratu nuen. Urte eta erdi behar izan nuen horretarako, eta 855 euroko soldata baino ez zen».

Hor hasi zen prekaritatearen mamua sentitzen. «Tesi konplikatu izan nuen, ez nuen aurreratzen, blokeatu egon nintzen luzez. Hasi eta sei hilabetera depresioan erori nintzen.

Beñat Garaio doktorea da eta freelance ikertzaile dabil gaur egun. Maider Galardi ikerlari ari da eta oraindik, hanka puntetan, kazetari. Jon URBE | FOKU

tzen. Bost urteetatik lau pasatu nituen ondoezik, idi baten moduan bultzatzen tesia amaitzeko eta gainontzeko arloetan gaizki: pertsonalki, osasun arazoekin, indar apurrak tesia aurreratzera bideratuta. Askotan, Eiderrekin hizketan, esaten genuen: 'tesiak bizitza izorratu dit'. Irudipen hori nuen. Inguruko harremanak ere okertu ziren, gaizki nengoa, nire burua errekonozitu ezinean».

Tesia entregatu eta asteburu txarra pasatu zuen. Baina astelehenean altxatu eta lau urte lehenagoko Beñat sentitu zen: «Txispa eta ilusioarekin nengoen berriz ere, eta tesia defendatu nuen beste aldarre eta indar batekin. Zorionez, errekuperazioa nahiko azkarra izan da, baina bada jendea bere onera etortzeko urtebete behar izan duena, edo tesia amaituta osasun larrialdi bat izan duena, bere ondoeza hala kaleratu duelako».

«Benetan oso-oso gogorra izan da», aitortu du. Horregatik, ez du orain bere burua unibertsitatean lanean irudikatzen, lan karga handiarekin eta prekaritatearekin aunitz sufritzen duelako. «Freelance bezala nabil, eta gogorra izan arren, gutxienez bakarrik nago eta ez diot inori azalpenik eman behar. Egun txar bat badut, buelta eman diezaioket nire kabuz. Unibertsitateko lan karga eta dispersioa arris-

## ZEINTZUK DIRA ALARMA SEINALEAK?

Leire Pinedo psikologoak ikertzaileen alarma seinale batzuk identifikatu ditu, eta horien berri ere eman zuten Iker gazte kongresuan, izan ditzaketan ondoezak hobeki ezagutzeko asmoz. Azaldu zuten, bakoitzak hagitz modu ezberdinean azaleratzen du ezinegona, baina etengabe kezkatuta eta hutsik sentitzea da alarma dei bat.

Bertze bat gorabehera emozionalak dira, bat-batekoak, umore aldaketa

erradikalak. Maiz gertatzen da zure gustuko ekintzetan eta zaletasunetan interesa galtzea edo gozatu ezina ere. Energia falta edo gehiegizko nekea, desira galera, ongi lo egin ezin izatea eta errudun edo baliorik gabea sentitzea ere ageri dira sintomen artean.

Kontzentratu ezina edo memoria okerragoa izatea sarri azaltzen da, eta suizidio pentsamenduak eta drogen gehiegizko kontsumoa ere eman daitezke.

kutsuak egiten zaizkit nire aurreko urteak kontuan izanda. Momentuz hau probatzen ari naiz; gutxienez, ikertzen jarrai dezaket, hori gustatzen baitzait».

Ikergazteko solasaldian, publikotik beren bizipenak partekatu zituzten hainbat lagunek. Adibidez, tesia hasi gabe duen batek beldur dela adierazi zuen, susmoa duelako gaizki pasatuko duela. Bertze bat kezu zen tesia gogorra izaten ari delako, batez ere zuzendariek botere harremana baliatzen dutelako berarekin lan egiterakoan. Postdok ikerketa egiten ari da bertze bat eta azaldu zuen postdok bizitza ere hagitz gogorra dela, ez duela etenik ezinegon horrek.

#### ESTRATEGIA BATZUK

Bukatzeko, egoera aldatu eta hobetzeko irtenbide, aholku eta neurriak proposatu zituzten. Doktoregaiantzat, honako estrategia hauek aipatu zituzten: zaila izan daitekeela mentalizatzea eta burbuila edo egoera on batean sartzea; aurrezkiak izatea, gutxi eta gaizki kobratuko duzulako; babes pertsonala izatea, eta zure zaletasunekin konpainian gozatzeko aukera; mugak zehaztea bai zure buruarekin, zenbat lan karga onartzeko prest zauden, bai bertzeekin, zer harreman mota izan nahi duzun zuzendariekin; eta zer lortu nahi duzun zehaztea –puntako ikerlaria izatea, aberaste pertsonala, unibertsitatean aurrera egitea...– eta horren arabera finkatzea esfortzuak. Dispersioa eta ahalik eta lan gehigarri gehien baztertzea ere planteatu zuten.

Zuzendari eta ikerketa taldeentzat, honako proposamen hauek pentsatu zituzten: doktoregaiak ez dira zaintzen an-



tolaera hierarkikoagatik, eta garrantzitsuak dira ordutegi egokia, lankidetzaren giroa eta kide guztiei merezimendu eta balioak aitortzea. Kontratu batean doktoregaiak zer egiten duen zehaztea ere komeni da; nolakoa izanen den hartumana, tesia zer den. Izan ere, «ematen du hasi eta bukatu egiten dela ikerketa, baina gorabehera asko daude, ez da batera lineala, eta orientazioa behar da; ahalik eta harreman horizontal eta zintzoena iza-

Solasaldi bat irekitzea izan zen hizlarien asmoa, ikergazteei nola sentitzen ziren galdetuz eta elkarrekin irtenbide gehiago bururatzen zitzaizkien ikusiz.  
Jon URBE | FOKU

**Ikerlariak bizipenak partekatu zituzten. Bat, adibidez, kezu zen tesia gogorra izaten ari delako, batez ere zuzendariek botere harremana baliatzen dutelako**

**«Denoi dagokigu gure partetik jartzea. Beharrezkoa da langile eta partaideak ondo, zoriontsu, aseta dituen erakunde bat sustatzea», aldarrikatu du Garaiok.**



tea komeni da eta gaitasun emozionalak trebatzea doktoregaiekin hitz egiteko».

Erakundeentzat ere eman zuten mezurik: «Etengabeko orientazio eta prebentzioa behar da, arreta psikologiko egokia, erantzuteko gai izango den espezializatutako jendea. Unibertsitateko zuzendariak aisialdian lan karga gehigarri gisa aritzen dira tesiak zuzentzen, eta zuzendu eta gero ematen dizkiete ordu libre batzuk. Alderantziz beharko luke: tesiak irauten duen bitartean eman beharko liekete denbora libre hori».

#### PARTEKATZE HUTSETIK HARAGO

Doktoregaien diru-sarrerak ere bermatu behar dira. «Nik 10.000 euro berreskuratu ditut EHUK ez zidalako zegoikidana ordaindu. Bi epaiketa eta lau urte itxaron behar izan ditut. Dirua behar duzu, ez zaizu

iristen duzunarekin, eta iruzur egin dizutela ohartzea mingarria da». Doktoregaien harreman sareak ere bultzatu beharko liriateke: «Bakarrik gaude, oso gogorra da hori. Eta batera egon eta elkarri babesa eta adorea emateko espazio bat sor liteke». Garaiok defendatu duenez, Ikergazte bezalako espazioak oso beharrezkoak dira alde horretatik ere.

Baina partekatze hutsetik harago joan behar dela aldarrikatu du: «Denoi dagokigu gure partetik jartzea. Beharrezkoa da langile eta partaideak ondo, zoriontsu, aseta dituen erakunde bat sustatzea, eta horretarako neurriak hartu behar dira».

Ekainaren 26an jarri dute hurrengo zita: UEUK ikerlarien prekaritatearen inguruko jardunaldi bat egiten du Eibarren, eta han jarraituko dute osasun mentalaz hitz egiten.



# LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia  
Ballesteros

iRRITZIA:





## PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

### HISTORIA APUR BAT


Askok diote sorreratik izan dela zinema «gauza politiko bat». Oso zaila da halakoa ez izatea; ikuspuntu jakin bat duen filma nola izan liteke ez-politiko? Kamera non ipini, plano jakin horren barruan zer erakutsi eta zer ez erabakitzen ari garen momentuan, gure ikuspuntua itsasten ari garelako. Batzuetan inkontzienteki agian, baina baita gure ideologia politiko ere. Baina hauteskunde bezperako erreportaje honen helburua zuzenean politika zein politikariak islatu dituzten telesailak gomendatzea da.

Politika zazpigarren artearen barruan txertatzen zinema mutuaren garaian hasi zen, 1915. urtean zehazki, David W. Griffith estatubatuarren “The Birth of a Nation” filmarekin; inspirazio arrazista eta supremazista duen lana da. Ameriketako Estatu Batuen sorreraren gertakizun nagusiak kontatzen ditu: gerra zibila, Lincolnen hilketa eta abar. Arrazistatza jotzen dute askok, Ku Klux Klan goraitzen duelako.

Sergei M. Eisenstein zuzendariaren 1925eko eta 1927ko “Bronenosets Potyomkin” eta “Oktyabr” ere aipatuko nituzke. Tartean, 1926an, Fritz Lang-en “Metropolis” ere estreinatu zuten; etorkizuneko munduaren ikuspegi apokaliptikoaren bidez, gizartearen antolamenduari buruz gogoe-ta egin eta langile klasearen eta ugazaben arteko krisi soziala erakusten du. Bigarren Mundu Gerrak sekulako eragina izan zuen zinemagintzan eta amaitu zenean, herrial-

# Hauteskundeak telesailen jokalekuan

Bihar izango dira udal eta foru hauteskundeak. Azken asteotan era guztietako kanpainak ikusi ditugu telebistan, prentsan nahiz sareetan. Fikziozko kontakizun batetik irtenda diruditen politikariak ezagutu ditugu, satira politiko baten gidoitik irtenda diruditen egoerak, eta nola ez, baita thriller politiko ilunenetan ikusten ditugun azpi-jokoak ere. Hauteskundeak amaitu eta oraindik ere politika-gose bazara, honatx datu zein gomendio batzuk.



dearen arabera desberdin hasi ziren jorratzen politikaren inguruko gaiak. 1945. urteaz geroztik, Italian neorrealismoa sortu zen, esaterako; Roberto Rossellini-ren “Roma città aperta” edota Vittorio De Sica-ren “Ladri di biciclette” filmekin, besteak beste.

### BILAKAERA

Interesgarria iruditzen zait, gai jakin bati buruzko fikzioak egiten dituztenean, urtez urteko bilakaera ikustea. Nabaria delako garai jakin horretako gertaerekin lotuta egoten direla ia beti jorratutako gaiak. Alegia, 1906-2022 bitarte politikaren inguruko gaiek zinemagintzan zer nolako presentzia izan duten aztertu dut. Urtez urteko igoera nabaria da, baita gai hau jorratu ez den urteetan zergatik izan ote daitekeen ere. Bigarren Mundu Gerratik aurrera izandako hazkunde ere ikaragarria izan da, bestalde.

### POLITIKA TELESAILTAN

Goazen interesgarriena aipatzera. Izan ere, honako hauek dira, azken urteotan pantaila txikian politika mundua islatu duten izenburuen artean, onenak iruditzen zaizkidanak. Tira, onenak baino gehiago, politikaren zoko zoragarri baina, era berean, aspergarri eta ustel horiek guztiak telesail formatuan jorratu dituzten izenburu interesgarrienak. Ohar bat egingo dizuet: “House of Cards”-en falta nabari baduzue, arrazoia azalduko dizuet; ez dut gogorik Kevin Spacey aktorearen ezer gomendatzeko. Zergatik badakizuela uste dut.



## Mrs. America

HBO Max

Ameriketako Estatu Batuetako gizon eta emakumeen arteko lan, dibortzio eta jabetza arloko eskubide berdintasuna sustatzen zuen proiektuaren aurka egin zuen politikari ultrakontserbadorea izan zen Phyllis Schlafly. Feminismoaren aurkako arerio amorratua, neurri batean emakumeen eskubideak geldiarazi zituen, horrekin guztiarekin gozatzen zuen bitartean.

ekoizpen paregabe honek, hein handi batean, Cate Blanchett aktoreak maisuki gorpuztu duen Schlafly-ren pape-rari esker lortu du urteko telesail onenen zerrendara igotzea. Oso telesail politikoa iruditu zait, botere borroken eta borroka dialektikoen gainean eraikita dagoelako, eta historia aldatzeko gai diren iritzi korrante bihurtzen diren narratibak nola idazten diren erakusten duelako. Nabarmen-tzekoa, protagonistek jaurtitzan dituzten mezuetatik harago, moral autoritarioaren gaitzespena formaren bidez iristen zaiola ikusleari. Hain zuzen, Phyllisen eszena gehienak, estetika eta ikuspegi zapaltzailea erabiliz, era karte-siar eta oso “akademikoan” errodututa daude, eta bera beti dago planoaren erdian. Aldiz, eremu feministari dagozkion

eszenak kamera lurrunkorra-go eta askeago batekin hartu dira. Zuzendaritza lana paregabea da eta gidoia, biribila.

## The Diplomat

NETFLIX

Keri Russell aktore ezaguna protagonista duen drama politiko hau bereziki gomendagarria iruditzen zait nazioarteko tentsioak eta goi-mailako traizio politikoak maite dituztenentzat. Aktoreak Kate Wyler diplomatikoa gorpuzten du. Ustekabean, nazioarteko krisi larri baten erdian, AEBetako enbaxadore izendatuko dute Erresuma Batuan. Hori guztia, Hal Wyler (Rufus Sewell)

politikari eta diplomatiko ezagunarekin duen harremana salbatzen saiatzen diren bitartean.

Zalantzarik gabe, Kate eta Hal Wyler senar-emazteak dira telesail honen funtsa. Drama politikoa den arren, maitasun azpitramak “folletoi” kutsu apur bat eta umore dوسي txikiak ere ematen dizkio serieari. Gidoiak lehentasun bera ematen baitie bikote harremanari eta trama politikoari. Haien arteko erlazioa eta nazioarteko etorkizun geopolitikoa ezbaian jar dezakeen edozein erabaki maila berean kokatzen ditu. Elkarri-zketa zorrotz eta mamitsu-z betea, egoera interesgarriak planteatzen ditu telesailak. Aipatu ditudan gainerako telesailekin aldera-

tuta, “The Diplomat”-ek herrialdeen arteko harremanak koipeztatzen dituzten zerbitzari publikoen lana islatzen du. Telesail arina eta entrete-nigarria da.

## Borgen

NETFLIX

Boterea, ustelkeria, zintzotasuna, familia, gizartea eta kazetari-tza uztartzen dituen hausnarketa-rik biribilena eta zorrotzena izan liteke eta, batez ere, entrete-nigarriena. Danimarkako lehen ministro izateko Birgitte Nyborg politikariak egunero egin behar duen lan eta sakrifizioa erakusten digu telesail honek. Baita helburu horrek bere bizitza per-sonalean izango duen eragina ere. Nyborg ez da ohiko politika-ria, ordea. Lehen ministro izateko bidean da, baina bere integritateari eutsiz, idealak errespetatuz eta herriaren in-teresen alde borrokatuz.

Gidoi bikain eta dotorea, tonu didaktiko eta sakona duena. Ak-tore guztiak ere nabarmen-tzekoak, baina, batez ere, protagon-istarena egiten duen Sidse Babbett Knudsen azpimarratuko nuke. Bere pertsonaia gutako edonoren pare jartzeko duen gaitasunak bere familiaren ere-mu pribatuan sartzeko aukera ematen digu. Politikariez dugun irudi hotz eta eskuraezin hori guztiz apurtu eta pertsona



Lehen orrian «The Birth of a Nation» filmaren fotograma, eta urtez urte politika gaitzat hartu duten film kopuruaren bilakaera. Bigarren orri honetan, goian «Mrs. America» eta «Borgen», eta behean «The Diplomat».

arrunt baten mailan jartzen du. Noski, politikaren lehen lerroan egoteak hainbat momentutan eskuetatik alde egingo dion garapen pertsonal eta profesionala ekarriko dio. Oro har, emakumearen irudia eta eginkizunak oso modu interesgarrian aurkezten ditu telesailak, topikoak eraitsiz eta estereotipoetara jo gabe. Erritmo biziko trama du, eta sastatzeko moduko elkarrizketa zorrotz eta burutsuak.

### The West Wing

HBO Max eta AMAZON

Politikaz mintzo bagara, historiako telesail onenen zerrenda ugaritan azaltzen den “The West Wing” aipatzea derrigorrezkoa da. Joshua Bartlett presidente demokrataren egunerokoa erakusten digu: ekonomialari katolikoa eta pentsaera liberalekoa, bere kolaboratzaile leialekin batera AEBak kudetzeko erronkari aurre egin beharko dio.

Aaron Sorkin sortzailea aipatzea ere ezinbestekoa iruditzen zait telesail honen muina ulertzeko. Elkarrizketa ugari bezain zorrotzetan oinarritu ohi baititu bere gidoiak, iraupen luzeko travelling-ekin osatuak askotan. Horrez gainera, pertsonaia askok parte hartzen dute eszena berean, horrek dakarren guztiarekin: denbora tarte laburrean per-



Goian, «Stonehouse» eta «The Thick of It» telesailen fotogramak. Behean, «The West Wing» eta «The Minister».



tsonaia asko, oinez, eta etenik gabe hitz egiten duten bitartean. Ohartarazi nahi dut, beraz, agian ez dela publiko guztientzat. Oso konplexua da. Oso azkarra da. Oso ondo pentsatutako gidoia du, amerikar politikaz gainezka eta esaldi gogoangarriz betea dagoena. Beren keinuetan, begiradetan, esku-hartzeetan definitzen dira pertsonaiak, guztiak iheskorrak. Karismatikoa da eta batez ere, onerako zein txarrerako, oso amerikarra da.

### Stonehouse

FILMIN

Gidoilariak sarritan esan ohi dute, benetan gertatu diren istorio harrigarriak pantailaraterako orduan, hutsetik sortutako istorio originalak izan balira, ziurrenik onartu ere ez zituztela egingo. Honako hau benetan gertatutako istorio sinestezin horietako bat da. Matthew Macfadyen, “Succession” telesaileko Tom, ikustea argudio nahikoa iruditzen zait telesail honi aukera bat emateko, baina jakina, ez da bakarra, inondik inora ere.

Benetako gertaeretan oinarritutako miniserie honek John Stonehouse parlamentario britainiarraren istorioa azaltzen du: haren igoeran eta, batez ere, gainbeheran oinarritua. Sekretuz, amarruz eta harreman bereziz betetako istorio korapilatsua da, 1974an bere heriotzaren si-



mulazioarekin amaitu zen arte. Plana, ordea, ez zen espero bezala atera. Tragikomedia edo dramedia tonua duen istorioa da, eta gidoia elkarrizketa mamitsuz beteta dago.

### The Minister

FILMIN

“Trapped” telesail gomendagarriaren erakutsi zigun Olafur Darrri Olafsson aktore bikainak zer-nolako maila duen, eta ekoizpen paregabe honetan ere gauza bera utzi du agerian. Benedikt Rikhardsson Islandiako lehen ministroa gorpuzten du kasu honetan, bere osasun mentala okertu dela-eta gobernuaren egonkortasuna eta bere inguruko bizitzak mehatxupean jarriko dituen politikaria.

Islandiako mekanismo politiko guztiak ezagutzeko aukera ematen digu telesailak; batere konbentzionala ez den lehen ministro baten ikuspuntutik,

hain zuzen. Pertsonaiaren garapena oso era interesgarrian azaldua dago; niri alor hori gustatu zait gehien. Islandiako RUV katean estreinatu zutenean, lehen atalak %41,1eko rating eta %94,4ko share ikaragarriak lortu zituen.

### The Thick of It

FILMIN

2005. urtean Armando Iannuccik sortutako satira politikoa, eta Peter Capaldi bikaina protagonista duena. Gizarte Gaietan eta Herritarren Ministerioaren egunerokotasunean murgilduko gaitu. “Yes Minister” klasikoaren kutsua duen ekoizpen honek politikarien, funtzionarioen, harreman publikoetako arduradunen eta komunikabideen artean sortzen diren gatazkak erakusten dizkigu. Horrek guztiak egoera ugari eragingo du, eta gobernarien





eta haien aholkularien gaitasun ezak agerian geratuko dira. Politika interesatu ala ez, biziki gomendagarria da, komedia dibertigarria izateaz gain, oso errealista delako. Komedia britainiarraren bila-kaera ezagutu eta garai berri-rra nola egokitzen ari den jakiteko ezinbesteko seriea.

## Parlement

FILMIN

Europako Parlamentuak zertarako balio duen ez badakizu, hauxe da zure telesaila. «Euro-eszeptikoentzat satira desegokia», dio telesailaren leloak.

Samy Frantziako parlamentari laguntzaile gaztea da kontakizunaren protagonista nagusia, eta ahalik eta unerik okerreanean hasiko da lanean: Brexit-aren erreferenduma egin eta aste gutxira. Europako Parlamentua izaki erraldoi, nahasi eta burokratiko moduan aurkezten du telesailak hasieratik. Europako herritar askok ez dute ondo ulertzen Erkidegoko erakundearen funtzionamendua, eta horrek instintiboki Samy protagonistarekiko enpatia sentiarazten digu.

Satiraren berezko esentzia horretan guztiz murgiltzen denean funtzionatzen du ho-

bekien telesailak; pertsonaien erradiografia umorearen bidez azaleratzen duenean. Legebiltzarkideak ezgai edo pertsona makiaveliko gisa islatzen dituenean, adibidez, aparta irudititu zait.

## Vota Juan, Vamos Juan eta Venga Juan

HBO Max

Umorearen bideak jorratzea ere ezinbestekoa da politika aztertzerako orduan eta zer hoberik izenburu hauek baino. Hiru denboraldiko telesail zoragarri eta oso dibertigarria da eta kito. «Vergüenza» telesailaren umore deserosoa maite baduzu, «Veep» telesailarekin barre egiten baduzu eta «House of Cards»-en bertsio espainiarra ikusteko gogoz bazabiltza, baina Kevin Spaceyren pertsonaia Javier Camarak maisuki gorpuzten duen protagonista trakets, gezurti, oportunistak eta baldar batekin ordezkaturak, hau da zure telesaila.

Zein ongi pasatzen duan ekoizpen honekin eta zein gustura eta erraz ikusten den. Negatibotasunak guztia inbaditzen duen garai honetan, derrigorrezkoa izan beharko lu-



ke horrelako proposamenak ikustea. Espainiar politikarien kaskarkeria islatzen duen umorezko ezinbesteko telesaila.

## Baron Noir

Errebantxa sozial egarri eutsiezinak bultzatuta, Philippe Rickwaert (Kad Merad) Frantziako Alderdi Sozialistako Nordeko alkateordeak egindako epopeia politiko eta judizialaren kronika azaltzen du telesailak. Ekoizpenak politikaren hodi ilunenak zeharkatzen ditu: traizioak, manipulazioa, botokak erostea, mendekuak eta ustelkeria, besteak beste.

«Baron Noir»-en zerbaitek harrapatzen badu, desengainu orokorrek lotzen den gaurkotasan politikoaren erretratu hiperrealista da hori. Fikzioan

azaltzen diren siglak inguruan daukazun benetako alderdi politikoeekin ordezkatu, eta ziur antzeko zerbait ikusiko duzula. Aipaturiko Rickwaert boterearen erotikak horditutako pertsonaia magnetikoa da, maila ebolutibo politikoaren gorenean egotearekin itsututa bizi dena, aurrean nor dagoen axola gabe. Erraza da atal batzuetan arrazoi ekonomikoa ia bigarren mailakoa dela antzematea; jatorri nahiko apaletik etorri izana eta inplikazio emozionalak harri txiki bat besterik ez dira bidean eta ez diote arretarik kentzen haren benetako helburuari: botereri, alegia. Politika maite dutenei gozamen berezia eragingo dien arren, ikusle orokorren ere gustatuko zaio, finean ondo egindako thriller politikoa baita.



Azken hiru adibideak: goian «Parlement» eta «Vota Juan»; behean «Baron Noir».



## Izaro FERNANDEZ IRIONDO

Donostiako Informatika Fakultateko Irakasle eta Ikerlaria, UPV/EHU

# Adimen Artifiziala garun ikerketan bidelagun

**G**iza garuna oso organo konplexu eta bizia da. Milaka eta milaka neuronen arteko sinkronizazio perfektuari esker gure eguneroko bizitzako jarduerak gauzatu ditzakegu. Neurona sare erraldoi hori aktibo mantentzeko energia kantitate handia kontsumitzen du garunak. Izan ere, burmuinak gure pisuaren %2 hartzen duen arren, gure gorputzak duen energiaren %20 inguru kontsumitzen du atsedean egoeran.

**Eta nola barnera gaitzeko gure garunean?** Gaur egun dugun teknologiari esker, erresonantzia magnetikoari esker alegia, garuneko ia mutur guztiak aztertzeke gaitasuna dugu. Hala eta guztiz ere, bidaia horretan garunean gauzatzen diren prozesu konplexuak ulertzeko laguntza behar dugu zientzialariok. Zorionez, burmuineko irudien azterketa horretan aliatu berri bat dugu: Adimen Artifiziala (AA)! Imaginatu AA detektibe nekaezin bat bezala, edozein pertsonak begi bistaz baino datu kopuru askoz handiagoak aztertzeke eta ezaugarri ezkutuak aurkitzeke gai dena.

**Baina nola laguntzen digu zientzialariok AA-k?** Hasieran, gizakioi gertatzen zaigun moduan, AA deituriko detektibeak ez daki ezer gure garunari buruz ez baitu inoiz ikusi. Hala ere, pertsona gaixo eta osasuntsuen hainbat eta hainbat irudi erakutsi ondoren gai da gaixotasunaren ezaugarriak antzemateko denbora-tarte labur batean. Horrelaxe, adimen artifiziala laguntza bikaina izan daiteke gaixotasunen diagnosian eta, batez ere, pertsona bakoitzak behar duen tratamenduaren pertsonalizazioan.

**Izan ere, tratamendu pertsonalizatua gaur egungo erronka handienetariko bat da. Zergatik?** Lehendabizi, pertso-

na bakoitza mundu bat delako eta ondorioz, bakoitzak bere garun-ezaugarri propioak dituelako. Gaixotasun bera bi pertsonen ez dutelako zertan berdin pairatu; eta gainera, gaixotasun bera izanik eta sintomatologia bera adierazi arren, bi pertsona horiek tratamendu berari oso ezberdin erantzun diezaioketelako. Horregatik guztiarengatik, AA-k gaixotasun bera duten pertsonen artean garun-ezaugarri antzekoak partekatzen dituzten azpitaldeak aurki ditzake eta azpitalde bakoitzerako tratamendu pertsonalizatu eta eraginkorragoen diseinua ahalbidetu dezake.

**Eta hain lagungarria dela ikusi ostean, zer pentsatzen du jendeak AA medikuntzan erabiltzeaz?** AI4MED ([ai4med.org](http://ai4med.org)) Adimen Artifiziala medikuntzan erabiltzea helburu duen elkarteak jardunaldi bat antolatu zuen Valentzian 2023ko martxoan eta inkesta bat egin zuten ikusleen artean. Partaideen %95,6k AA medikuntzan erabiltzearekin ados zegoela erantzun zuen. Hala ere, beste galderetako batean AA-k oraindik ere eurengan deskonfiantza edota beldurra eragiten zuela onartu zuten.

Partaideen erdiak baino gehiagok (%57,8) Adimen Artifizialak mediku

eta pazientearen arteko erlazioari gizatasuna kentzen ziola erantzun zuen; partaideen %46,7k uste zuen oraindik ere ezjakintasun handia dagoela AA-ren inguruan bai medikuen bai zientzialarion aldetik; %28,9k oraindik AA erremintak ez direla hain zehatzak uste zuen, eta ikusleen %11k AA-ri diogun beldurra beste arrazoi batzuei atxikitzen zien.

**Beraz, zer espero dezakegu Adimen Artifiziala medikuntzan erabiltzeari buruz?** Adimen Artifizialak, garunaren azterketari aplikatuta, aurrerapen handiak ekarriko dizkigu ikerlariok; hala ere, gakoa mediku eta zientzialarion arteko elkarlanean dago. Izan ere, zertarako balio du AA tresna itzel batek gero ez badugu praktikan jarritzen? Oraindik lan handia dugu aurretik. Alde batetik, zientzialariok medikuen beharrak ulertzeko gai izan behar dugu lagungarriak izango zaizkien tresnak gauzatzeko. Bestalde, medikuek zientzialariok diseinatzen ditugun tresnak ezagutu behar dituzte eta horiek beren eguneroko lanean integratzeko teknikak garatu. Helburu horiek bideratuz, etorkizuna oso oparoa izan daiteke jakintzagai guztietako langileok batera lan egiten badugu jomuga berera heltzeko. •



Gakoa mediku eta zientzialarion arteko elkarlanean dago. David GYUNG | GETTY IMAGES

# BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA.

## ERREPUBLIKARI ONGIETORRIA DONOSTIAKO GARIBAI KALEAN

1931ko apirilaren 12ko udal hauteskondeek espainiar monarkia bertan behera utzi zuten, eta bi egun geroago estatuan errepublika aldarrikatu zen. Donostian, Hego Euskal Herriko herri askotan bezala, errepublikaren etorrera ospatu zuten, eta horren guztiaren fede ematen zuen "La Voz de Guipuzcoa" egunkari errepublikanoak. Gipuzkoako hiriburuko hainbat auzotatik hurbildu ziren musika bandekin erdigunera, eta kazeta errepublikanoak honako hau deskribatzen zuen: «... elementu abertzale ugari ere ibili ziren hirian zehar, Euskadi librearen eta Euskal Errepublikaren aldeko oihuak jaurtiz... Hainbat abesti abestu zituzten, eta behin eta berriz adierazi zuten beren poza...». Kronika berean, Udaleko bilkura-aretetik Alfonso XIII.aren erretratua kendu zutelara aipatzen zen, udal berria eratzeko osoko bilkura hasi aurretik. Artikulua ilustratzen duen argazkian donostiar talde bat ageri da, errepublikanoen garaipena ospatzen, Garibai kaleko 4. zenbakian zegoen Errepublikanoen Batasunaren Zirkuluko lokalaren aurrean.

# bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde  
berrietara  
goaz



hurrengo  
ostiralean  
zure  
kioskoan

1,50€

eta gainera...

**CORRIENTES  
ETORBIDEA**

TANGOAREN BIHOTZA

**ATENAS**

AINZINAKO  
ONDAREA

**TXAMANTXOIA**

AHAZTUA BAI,  
POLITA ERE BAI

**TOUBKAL**

HERRI BATEN  
KULTURAREN ONDARE

**CHICAGO**

UDABERRI AMAIERAKO  
EPELETAN

**Bertatik bertara** Getariako erregina, kostaldeko mahastien artean **Egin planak** Euskal Herria Zuzenean, kultur aniztasuna zutabe;  
Zinegoak: mundu berriak pentsatu, borrokatu, gozatu: "Orgia", Arriagaren jasangarritasunaren aldeko apustua...

**Munduan pasieran** "Jet d'eau", Genevako iturri erraldoia; Gamelu ibilandia, Irango Qeshm uhartean...

